

JARDUEREN OROITZA-TXOSTENA



2021

AURKIBIDEA

- 0 SARRERA**
- 1 IKERLANAK**
- 2 ZABALKUNDEA**
- 3 BEKADUNAK ETA PRAKTIKETAKO IKASLEAK**
(graduokoak eta graduondokoak)
- 4 HERMES, PENTSAMENDU ETA HISTORIA**

ALDIZKARIA

- 5 GOGOETA ETA EZTABAIDA MINTZAGUNEA**
- 6 GAZTERIA**
- 7 ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA**
- 8 EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA**
- 9 SABINO ARANA SARIAK**
- 10 BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK**
- 11 KOMUNIKAZIOA/INFORMATIKA**
- 12 JARDUEREN ONURADUNAK**
ETA LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA
- 13 HIZKUNTZA- ETA GENERO-POLITIKEN**

ADIERAZPENA

- # ERANSKINA: 2021eko JARDUERAK**

0

SARRERA

Sabino Arana Fundazioaren 2021eko egitarauaren ardatzak ondokoak izan dira: *Nor gara gu?* erakusketa erdi iraunkorra antolatu eta abian jartzea eta gogoeta eta eztabaida mintzagunean jorratu diren urtemugei lotutako ekitaldiak. Horien adibide dira, besteak beste, Euzko Mendigoxale Batzaren mendeurrena, Buenos Aireseko *Laurak Bat* Euskal Etxean (Argentina) jasotako ikurrinaren mendeurrena, Joseba Rezolaren heriotzaren 50. urteurrena, erresistentziako kide Alejandro Elizalde nafarraren heriotzaren 75. urteurrena, PDE-EDP erakundearekin, Euskaltzaindiarekin, Zuzenbideko Euskal Akademiarekin edo Helduak elkartearekin elkarlanean egindako jardunaldiak.

1

IKERLANAK



Alberto Onaindiaren gutunak, 1936-1945

Orain dela hamabi urte inguru hasi zen garrantzi handiko lana da. Lanaren zeregin behinenak Vatikanoko (Erroma) agiritegietan eta Estatuko beste agiritegi batzuetan gordetako 4.000 bat agiri batu, eurak transkribatu eta horien gaineko oharra egitea da. Lan horren xede nagusia dugu Agirre lehendakariaren laguntzaile Alberto Onaindia abadeak 1936 eta 1945 urteen artean idatzitako gutunak berreskuratzea eta abadeak gerra zibilean zein Bigarren Mundu Gerran egindako kudeaketa-lanen berri eskuratzea.

2

ZABALKUNDEA

2.1 Artikuluak DEIA egunkariarentzat

Euskal historian eta antropologian oinarriturik, askotariko gaiak jorratzen dituzten artikuluak prestatu ditugu DEIA egunkariarentzat 2021eko ekitaldian, “Historias vascas” deritzon sailean.

2020ko ekitaldian, ondokoen ekarpena jaso dute Sabino Arana Fundazioak eta Deia egunkariak: Jabier Aspuru, José Ignacio Salazar Arechalde, Juan Madariaga, Alison Posey, Ernesto García Fernández, Aitor Miñambres, Jon Penche, Óscar Álvarez Gila, Anabel Martín, Fernando Martínez Rueda, Begoña Villanueva, Luis Bilbao Larrondo, Lourdes Herrasti, Iñaki García Uribe, Eduardo J. Alonso Olea, Patxi Agirre, Dani Álvarez, Begoña Segovia, Eduardo Araujo, Guillermo Menéndez Qurísa, Carlos Iriarte, Andres Urrutia, Mikel Magunazelaia, Urko Cuesta, Fernando Mikelarena, Seve Calleja, Lázaro Echegaray, Luis Javier Pérez, Begoña Etxenagusia, Etxahun Galparsoro, Begoña Bilbao Bilbao, Karmele Perez Urraza, Gurutze Ezkurdia Arteaga eta Patxi Irurzun.

2.2 Kolaborazioak irratietan

Era berean, kolaborazioak egin ditugu Onda Vascan, hamabost egunik behin, eta Bizkaia Irratian noizean behin, historiari eta memoria historikoari lotutako gaien zabalkundea egiteko asmoz, gai horiei buruzko ezagutza gizartean hedatzearen. Era berean, gure historialarien aholkularitza edo ekarpena eskatu duten irratiei edo hedabideei ere lagundu diegu.

2.3 LAU HAIZETARA

‘Lau haizetara’ deritzon sailean, Euskal Herriarekin eta bertako pertsona ospetsuekin zerikusia duten gertaera historikoen urteurrenak gogoratu ohi ditugu; agiritegiko dokumentu historikoak, argazkiak eta museoko piezak erakusten ditugu; liburutegiko eta hemerrotekako aleak ikusgai jarri; gaur egungo gizarteari interesatzen zaizkion gaiei buruzko hitzaldiak partekatzen ditugu; ikus-entzunezkoak; modu batera edo bestera Euskadiko historian eragina izan duten gai historiko eta antropologikoei buruzko prentsa-artikuluak eskaintzen ditugu; gure historialariek irratian egindako elkarrizketak...

Sailak hiru atal dauzka:

- Euskal historiak: urteurrenak, biografiak, gertaerak eta pertsonaia historikoak, erreportajeak... Atal hori egunero “elikatzen” da, astelehenetik larunbatera, eta egun batzuetan bi albiste ere igotzen dira, lotutako argazki (mila inguru) eta Sabino Arana Fundazioak koordinatu edo kudeatu duen gaiari buruzko PDF eta/edo erreportaje-audioekin batera.
- Argazkiak: albumak, agiritegiko dokumentuak, museoko piezak eta beste. 50.000 irudik baino gehiagok osatzen dute argazki-funtsa.
- Bideoak: Euskal gizartea XXI. mendean. Atal honetan, historialariek eta hainbat arlotako adituek (antropologia, kultura, ekonomia, soziologia...) astero-astero ekartzen dizkigute Euskal Herriaren historiako gertakari garrantzitsuen eta protagonisten inguruko testuak. Gure kultura, nortasuna eta iragana eraikitzeko ibilbidea.

Bestalde, Deia egunkariarekin elkarlanean, larunbatero gai jakin baten inguruan idatzitako erreportaje historiko, kultural eta/edo antropologikoa partekatzen dugu irakurleekin, aditu baten eskutik.

2021ean, 270 albiste inguru argitaratu ditugu sail horretan, astelehenetik larunbatera (zerrenda doa erantsita).

3

BEKADUNAK ETA PRAKTIKALDIKO IKASLEAK

(graduak eta graduondokoak)

Gizarte-ikuspegiz den bezainbatean, gazteak prestatzeko konpromiso eta erantzukizunetik abiatuta, 2000. urtetik aurrera, Sabino Arana Fundazioak hainbat unibertsitatetako gradu eta gradu-ondoko ikasleen praktikak zuzentzen eta gainbegiratzen ditu, hain zuzen ere, unibertsitate hauetakoak: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea, Madrilgo CEU San Pablo Unibertsitatea, Europako Ikasketen Proiektua, Conneticut College (USA), Guadalajarako Unibertsitatea (Mexiko), Nazioarteko Bikaintasun Kanpua, Hezkuntza Esparrutik Lan Arlora Igarotzeko Beken Programa, Novia Salcedo Fundazioa... Praktika horiek agiritegian, museoan edo Fundazioaren Prentsa Bulegoan egiten dira.

Ildo honi dagokionez, esan beharra dago Humanitateen arloko etorkizuneko ia ehun profesionalek (horietako batzuk dagoeneko lan-munduan ari dira) prestakuntza jasotzen jarraitu dutela gure instalazioetan.

2021ean, hamabost (15) ikaslek eta bekadunek egin dituzte praktikak Sabino Arana Fundazioan (Museoan eta Agiritegian).

4

HERMES, PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA


2021eko ekitaldian, Hermes aldizkariaren hiru zenbaki argitaratu ditugu, hain zuzen ere, 68., 69. eta 70. zenbakiak.



68. zenbakia: XXI. MENDEKO PANDEMIA

Maiatzean argitaratu zen. Sabino Arana Fundazioak argitaratzen duen *Hermes* pentsamendu eta historia aldizkariak, gizarte-arlo guztietako adituek egindako hausnarketak biltzen ditu, ehun orrialdetan, COVID-19ak Euskal Herrian izan dituen ondorioei buruzkoak, baita osasun-krisia laugarren agerraldian bete-betean zela, etorkizunari aurre egiteko gomendioak ere.

Telelana, lineako hezkuntza, autogobernuak pairatu behar izan dituen mugak, eskubideen murrizketa, merkataritza aldaketa, industria, osasun publiko eta pribatua, genero berdintasunean eta kulturean izan duen eragina... ditugu adituek jorratu dituzten gaietako batzuk, besteak beste, Daniel Inerarityk, merkataritza ganberetako presidenteez, gobernuko sailburuek (Gotzone Sagardui eta Idoia Mendia). Irakasleek, hezitzaileek eta abarrek ere bizi izandakoaren ikuspegi sakona eta hurbila ematen dute, hoguei ekarpenetan baino gehiagotan.



Zenbakiak, gainera, Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariari egindako elkarrizketa dakar. Lehendakariak pandemiak gurean eman duen urtebetetik gorako aldiaren nondik norako nagusiak aletu ditu, garai horretan gertatu diren egoerak itxaropenez eta ahots kritikoaz aztertuz.

69. zenbakia: EUSKARAREN ERRONKAK ETORKIZUNEKO EUSKAL GIZARTEAN


Uztailan argitaratu zen. Zenbakiak azterketa sakona dakar euskalgintzako adituen eskutik, hizkuntzak etorkizunari begira izan ditzakeen aukerei eta mehatxuei buruz. Helburuetako bat teknologia berriak baliatzea, mundu globalean bizirik ateratzeko.

Monografiko berezi hau Euskaltzaindiak eta SAFek lankidetzan antolatutako mintegi batean parte hartu zuten euskal gizartearen eta kulturaren hainbat arlotako aditu esanguratsuen gogoeten emaitza da.

Ondokoek egin dituzte ekarpenak: Erramun Osa, Euskaltzaindiko Sustapen Batzordeko idazkaria eta euskaltzain urgazlea; Xabier Barandiaran, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Estrategia arduraduna; Ibon Zugasti, Prospektikerreko zuzendaria; Gorka Espiau, Agirre Lehendakaria Centerreko zuzendaria; Iñaki Iurrebaso, UPV/EHUko irakaslea; Andoni Eizagirre, Mondragon Unibertsitateko irakaslea eta Ion Muñoz, Deustuko Unibertsitateko irakaslea; Ane Urizar, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ikertzailea; Aitor Montes, medikua; Felix Zubia, Donostiako Ospitaleko ZIU medikua;

eta Jon Zarate, Farmazian doktorea eta NanoBioCeleko ikertzailea (UPV/EHU); Arantza del Pozo, Hizkuntza Teknologien eta Vicomtecheko Ahotsaren Saileko zuzendaria; Xabier Arregi, IXA ikerketa-taldeko kidea eta Euskal Herriko Teknologiako arduraduna; Igor Leturia Elhuyarreko hizketa-teknologiaren arduradunak eta Josu Aztiria Elhuyarreko Hizkuntza Adimen Artifizialeko Unitateko koordinatzailea.

Elkarrizketan, Joseba Segura Bilboko gotzainak, izendapenaren ondoren egindako aurreneko elkarrizketetako batean, badio EAEn sekularizazioa dagoela, erlijiotik politika esparrura, eta euskal nortasuna erdigune bihurtu dela autu horretan



70. zenbakia: ORAINA ALDATU ETORKIZUNA SALBATZEKO

Abenduan argitaratu da. Sabino Arana Fundazioak Hermes aldizkariaren ale berria argitaratuz eman dio amaiera 2021. urteari. Aldizkariaren azken aldeak euskal gizarteak gure planetarekin daukan atxikimendua jorratu du. Horretarako, 2030 Agendaren inguruko adituek ekimen horretan jasotako konpromisoak aletu dituzte, eta oraina ez zaintzeak kalitatezko etorkizunaz ezin gozatzeko ondorioak aztertu dituzte.

Jonan Fernandez, Gizarte Trantsizioaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusia; Andoni Hidalgo, EURIKER erakundearen sortzaile eta zuzendaria; Javier Cortés, United Nations Global Compact erakundearen Latinoamerika, Karibe eta Ipar Amerikarako arduradun ohia eta 2030 Agenda lokalizatzeko eragile askoren arteko lankidetzan aditua; Cristina Monge Lasier, ECODESeko aholkulari exekutiboa eta Zaragozako Unibertsitateko Soziologiako irakaslea; eta Pablo Martínez Oses Politika Zientzia eta Nazioarteko Harremanetako doktoreak gure 'ore ama' edo planeta zaintzeko erronka eta demaz beteriko etorkizunaz hitz egingo digute ale berrian.

Kike Santaren kazetariak Koldo Unceta UPV/EHUko katedraduna (HEGOAren zuzendari ohia) elkarrizketatu du.

Azkenik, Eguzki Urteaga soziologoak Molac Legearen nondik norakoak jorratu ditu.

Hermesek heldu egin dio une honetan gizarte gehien kezkatzen duen gaietako bati, auzi horrek herritarren ohiturak eta harremanak kolokan jarri baititu, zuzendariaren oharrean esan bezala. Dagoeneko, segida beldurgarri baten seigarren agerraldian gaude, eta amaiera gero eta urrunago sumatzen hasita gaude. Zorioneko birusak iseka egin dio zientziari eta oldarraldi bakoitzean mutatu egiten da are indar handiagoz berragertzeko. Agerraldien arteko segida laburtu egin da, eta agerraldietako une gorenetan, aldaera berri eta hilgarriagoak agertzen dira. Gaur egun, gizateriak ekin beharreko erronkak ez dauka zerikusirik meteoritoak suntsitzen dituzten misilekin, eskala handiko zibererasoekin edo gerra nuklearrekin. Bada, gure beldurrak botereari eta nagusitasunaren handinahari lotuago dauden etorkizuneko hondamendietan funtsatu dira, benetako beharretan baino.

5.1 “Demokrazioaren eta ongizate-estatuaren etorkizuna pandemiaren ostean”

Europako Alderdi Demokratarekin (PDE-EDP) lankidetzan antolatutako jardunaldia, Mikel Mancisidor Deustuko Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbideko irakasle eta Nazio Batuetako Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeko (CESCR) kideak koordinatua. Unibertsitateko irakasleek eta zuzenbide komunitarioan adituek covid-19ak demokraziaren kalitatean eta Ongizate Estatuaren politika publiko eta sozialen etorkizunean duen eragina aztertu zuten jardunaldian.



Carmen Salcedo Valentziako Lan Zuzenbideko irakasle eta Europako Kontseiluko aholkulariak Europako Gutun Sozialean ageri diren gizarte-eskubideak izan ditu hizpide. Salcedoren ustez, Europak erronka garrantzitsuenetako bat du aurrean: “COVID19ak eragindako krisia gainditzea”. Carmen Salcedoren arabera, izurriteak “eskubide sozialei eragin die, bereziki, eta beraz, pandemiari eman beharreko erantzunak horiek guztiak berreskuratu eta indartu behar ditu”.

Era berean, Europako Kontseiluaren aholkulariaren ustez, helburu hori lortzeko "tresna juridiko egokiena Europako Gutun Soziala da"; izan ere, “Nazioartean indarrean dauden itun guztien artean, eskubide sozialekiko konpromiso handiena duen tresna da”.

Bestalde, Arola Urdangarin Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdeko zuzendariak azpimarratu zuenez, COVID-19aren krisiak “agerian utzi ditu mugaz gaindiko lankidetzan dauden oztopoak, batez ere, mugaren bi aldeetan harat-honat bizi diren herritarrentzat”.

Renato Zerbini Brasiliako Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbideko irakasle eta NBEko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeko presidenteak aldeztu du Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak (CDESC) COVID-19aren aurkako borrokan duen zeregina. “CDESC osasun-eskubidea babesteko araubide sendoaren organo nagusia da; Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunak (PIDESC) sortu zuen organoa eta giza eskubideen osagarritasun, zatiezintasun eta unibertsaltasun printzipioek babesten dute”, adierazi zuen.

Azkenik, Göteborgeko Unibertsitateko Politika Zientzietako irakasle eta “Quality of Government” Institutuko ikertzaile nagusi Victor Lapuente jaunak European Quality of Government Index proiektua aurkeztu zuen. Proiektu horrek, 2009tik, EBko eskualde guztietako biztanleen gobernu-kalitatearen pertzepzioak aztertzen ditu.

Lapuate irakasleak azpimarratu zuenez, proiektuaren emaitzarik interesgarrienetako bat “eskualde batzuetako herritarrek, batzuetan herrialde beraren barruan, jasotako zerbitzuen kalitatea ebaluatzeko duten aukera paregabea da. Eskualdeen arteko ezberdintasun horiek, denbora igaro ahala murriztuz joan beharrean, iraun egiten dute eta, kasu batzuetan, handitu ere bai, adierazi zuten.

5.2 “Euskararen Legearen arrastotik, hizkuntza biziberritzeko bide eta erronka berriak”

Hizkuntzalariek, soziolinguistek, unibertsitateko irakasleek, erakunde publikoetako eta euskal kulturaren munduko ordezkariak euskara biziberritzeko bide berriak jorratu zituzten Bilbon, uztailaren 15ean, Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Fundazioak antolatutako mintegian, euskarak esparru berrietara iristeko aurkitzen dituen eragozpenak aztertutik.



Euskararen erabilera normalizatzeko Legearen printzipioak, helburuak, gabeziak eta eraginkortasuna aztertu ziren eta, ondorioetan, honako hau atera zuten, beste: “esparru guztietan goaz aurrera, baina oraindik ere askotariko erronka handiei aurre egin behar diegu”.

Jardunaldiaren irekiera-ekitaldian, ondokoek parte hartu zuten: Miren Dobaran, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea; Andres Urrutia, euskaltzainburua; eta Mireia Zarate, Sabino Arana Fundazioaren presidentea. Hizlariak, berriz, hauexek izan ziren: Josu Erkoreka, lehen Lehendakarioordea, Segurtasun sailburua eta, sasoiaren zenean, Euskararen Legearen txostengileetako bat Eusko Legebiltzarrean; Joseba Lozano, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria; Iñaki Arruti, Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuko arduraduna; Begoña Pedrosa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuordea; Iñaki Etxezarreta, Debagoieneko Arizmendi ikastolako zuzendaria; Ibone Bengoetxea, EITB Mediako zuzendaria; eta Iban Arantzabal, TOKIKOMeko presidentea.

Ondoko euskaltzainek ere parte hartu zuten mintegian: Jean Baptiste Coyos, euskaltzainburuordea; eta Euskaltzaindiaren Sustapen batzordeko Sagrario Aleman, Patxi Saez, Patxi Juaristi, Gotzon Lobera eta Erramun Osa

5.3 “EBren etorkizuneko zabalkundea Mendebaldeko Balkanetara”

“EBren etorkizuneko zabalkundea Mendebaldeko Balkanetara. Konpondu gabeko gatazkak gainditzea eta erronka geopolitikoak” izenburuaren ildotik, Europako Alderdi Demokratik (PDE-EDP) mintegi bat antolatu zuen azaroaren 17an, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan.



Mintegian, ertz askotako errealitate konplexu horren alderdi erabakigarrienak jorratuko ditugu ospe handiko adituen eskutik.

Hala, Miodrag Vlahović (Montenegro) diplomazialari eta politikariak, Kanpo Harremanetarako ministro ohiak eta Estatu Batuetan, Kanadan, Islandian eta Egoitza Santuan (Vatikanoa) eta Maltako Ordenan enbaxadore izandakoak, egoeraren nondik norako nagusiak azaldu zituen, joan den urrian, Bled hirian (Eslovenia) egindako EB eta Balkanen arteko goi-bileraren ondoren.

Ondoren, bideo bidez, Milivoj Bešlin historialari serbiarrak; Ylber Hysa diplomazialari eta politikari kosovoarrak; eta Ipar Mazedoniako Antonio Milososki diplomazialari eta politikariak, Kanpo Arazoetako ministro ohiak, nork bere herrialdeko egungo errealitate politikoa jorratuko dute, eta Europar Batasunari atxikitzeko garapen eta aukerei buruz hitz egin ziguten.

Aurrerako, Bosnia-Herzegovinako Boro Kontic kazetari eta Sarajevo Media Centreko buruak eta Miodrag Vlahović politikari eta diplomazialariak parte hartu zuten aurrez aurreko saioetan.



5.4 “Euskal pinturaren memoria”

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen barruan agertu ziren euskal kultura adierazpenen memoria aldarrikatzeko asmoz, Sabino Arana Fundazioak urtero-urtero antolatzen dituen

jardunaldiei gagozkiela, aurten, Bilboko Udalarekin lankidetzan, euskal pinturaren memoria aztertu zen.



Miren Josune Ariztondok koordinatuta, Luis Villacortak, Historia Moderno eta Garaikideko doktore eta arte-adituak hitzaldi nagusia eman zuen jardunaldian; mahai-ingurua ere izan zen, ondokoek parte hartu zutela: Mikel Onandia Garate EHUKo Arte Ederretako Fakultateko irakaslea (euskal artea osatzen duten elementuei buruz hitz egin zuen); Luis de Guezala, Historia Garaikideko doktorea, (Ginearen «Jaun Zuria» lanetik (1882) Guezalaren «Euskal Errepublika» margolanera (1931) doan aldia jorratu zuen, Euskal Artearen jarraipenerako hurbilketa emanda; eta Michel Mejuto, Artearen Aurten, 65 urte beteko dira Bonifacio Echegaray euskal legelari, historialari, euskaltzale eta idazlea hil zela. Hori dela eta, Euskaltzaindiak, Zuzenbidearen Euskal Akademiak eta Sabino Arana Fundazioak mintegi bat antolatu dute elkarlanean, euskal herritar esanguratsu horren bizitzari lotutako hainbat alderdi jorratzeko, hain zuzen ere, haietan islatzen direlako XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen lehen hereneko euskal kulturak, historiak eta zuzenbideak ondutako lorpenak eta ametsak.

Mintegian, Seve Calleja irakasleak Echegaray idazlearen profila aletu zuen. Horretarako, oraintsu berrargitaratu den *Poemak eta ipuinak* izeneko liburua hartu zuen ardatz.

5.5 “Bonifacio Echegaray (1878-1956), euskaldun ikasia”

Aurten, 65 urte beteko dira Bonifacio Echegaray euskal legelari, historialari, euskaltzale eta idazlea hil zela. Hori dela eta, Euskaltzaindiak, Zuzenbidearen Euskal Akademiak eta Sabino Arana Fundazioak mintegi bat antolatu dute elkarlanean, euskal herritar esanguratsu horren bizitzari lotutako hainbat alderdi jorratzeko, hain zuzen ere, haietan islatzen direlako XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen lehen hereneko euskal kulturak, historiak eta zuzenbideak ondutako lorpenak eta ametsak.

Mintegian, Seve Calleja irakasleak Echegaray idazlearen profila aletu zuen.

Horretarako, oraintsu berrargitaratu den *Poemak eta ipuinak* izeneko liburua hartu zuen ardatz.



Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Zuzenbidearen Euskal Akademiako buruak, aldiz, Echegaray legelariaren berri eman zuen. Azkenik, Bonifacioren biloba Lázaro Echegaray Gizarte Zientzietako doktoreak euskaldun ikasiaren bizipenak kontatu zituen.

5.6 XXI. mendeko eraldaketa politiko, ekonomiko eta sozialak (3 mintegi)

Xabier Barandiaran Deustuko Unibertsitateko Soziologia irakasleak koordinatuta, hiru mintegi egin genituen 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak aztertzeko (uztailaren 2an), COVID delakoaren osteko agenda politikoa aztertzeko (urriaren 29an) eta beste bat politikarekiko konfiantzaren egungo krisiari buruz hitz egiteko.

Globalizazioaren eta demokrazia liberalen krisiaren testuinguruan gertatzen ari diren aldaketa politiko, ekonomiko eta sozialen ondorioz, politikak konfiantza-krisi oso larri bati egin behar dio aurre. Hiru jardunaldi horietan askotariko egoerei aurre egiteko moduari buruz hitz egin genuen.



5.7 Euskal hezkuntzaren oraingo eta etorkizuneko erronkak” (bi mintegi)

Euskal Hezkuntzaren egungo eta etorkizuneko erronkak izenburuaren ildotik mahai-inguruen ziklo bat antolatu genuen Euskal Hezkuntzaren oraingo eta etorkizuneko erronkei buruz eztabaidatu eta hausnartzeko. Lehenengo jardunaldia joan den urriaren 25ean egin genuen, eta saio horretan, Euskadiko Lanbide Heziketaren orainaz eta etorkizunaz hitz egin eta gogoeta egin genuen.

Azaroaren 22an, ziklo honen bigarren jardunaldia egin zen, "Unibertsitatea Euskadi-Europan XXI. mendean: unibertsitate-prestakuntza, ezagutzaren sorrera, transferentzia eta inpaktua gizartean" izenburuaren ildoan.

HITZALDIAK ETA MAHAI-INGURUAK

5.8 “Euzko Mendigoxale Batza (EMB). Ehun urteko mendizaletasuna eta aberrigintza”

Iñaki García Uribe euskal mendizaletasunaren ikertzaile eta Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak eman zuen hitzaldia martxoaren 17an.



EMBri buruzko literatura urria egonik, García Uribek ikerketa-lana egin behar izan zuen aldeaz aurretik bere hitzaldia emateko. Hitzaldirako kronologia historikoa garatu zuen, kirolari lotutako euskal mendizaletasuna eta mendizaletasun politiko historikoa uztartuz. García Uribek ikerketan aurkitu zituen bitxikerien artean Carlos Linazasoren biografia dago. Carlos Linazasoro “Altzeta” mendizale gogoangarria García Uriberen aurretikoa, FVNako buru izatera iritsi zen, GBBko eta EAJ-PNVren EBBko kide izan zen eta gerra piztean, kartzela eta atzerrialdia pairatu zituen.

“Mendizalez eta abertzalez” beteriko ehun urteko aldi hori ekarri zuen gogora Iñaki García Uribek, sabindar abertzaletasunarekin nahasirik, hizlaria guztiz bat dator azken ildoarekin.

5.9 ZOOM bidezko konferentzia Londresko euskal etxearekin: “Euzkadiko Jaurilaritzaren Londresko ordezkartza (1937-1945)”

1937an, Pariskoa baino hilabete batzuk geroago, lanean hasi zen Londresen Euzkadiko Gobernuak Espainiako estatutik kanpo zabaldu zuen bigarren ordezkaritza, artean Gerra Zibila bete-betean zegoela euskal lurraldeetan. Kasu horretan ere, Frantziako ordezkaritzarekin gertatu bezala, bi izan ziren hiri hori aukeratzeko arrazoi nagusiak. Alde batetik, guztiok espero zuten Britainia Handiak eginkizun politiko garrantzitsua izatea gerran. Bestetik, Britainia Handia ume iheslarientzako harrera-lekua ere izan zen, herrialde horretako hainbat eskualdetan kanpamentu eta barnetegiak ezarri zirela, eta horiek koordinatzeko eta gainbegiratzeko egitura administratiboa behar zen.

Londresko hiriburuko Eaton Square kaleko 7-9 zenbakietan kokatutako lokaletan kokatuta, Jose Ignacio Lizaso geratu zen ordezkaritzaaren buru, Angel Gondra idazkari eta Antonio Gamarra eta Jesus Hickman Urrutia laguntzaile zituela. Bere egitekoen artean, gainera, diputatu britainiarren eta bere Maiestatearen Gobernuarekin izandako kontaktuen arteko propaganda zuzena zegoen.

Iñaki Goiogana historialariak Eusko Jaurlaritzak erbestean eta, zehazkiago, Londresko ordezkaritzak 1937 eta 1945 artean izandako estrategia politikoa ekarri zuen gogora bere hitzaldian.

5.10 “Venezuelako ekonomia. Hondamenditik susperraldira”

Venezuelako IESA erakundeko (Goi Mailako Administrazio Ikasketen Institutua) ekonomialari eta irakasle titularrak “Venezuelako ekonomia: hondamenditik susperraldira” hitzaldia eman zuen apirilaren 27an, Sabino Arana Fundazioan,

Hiru izan ziren Puente jaunaren hitzaldiaren ideia nagusiak:

- 1) Petrolioaren prezioaren jaitsiera izan da Venezuelako ekonomiaren hondamendiaren eragilea. Horrek gizarte-krisialdi larria ekarri dio Venezuelari, eta migrazio masiboa sortu.
- 2) Venezuelak norabidea berriro zuzentzeko, aldaketa politikoa behar da. Aldaketa politikorik gabe ez da aldaketa ekonomikorik izango.
- 3) Oposizioak estrategia bateratzea lortzen ez duen bitartean, ez da aldaketa politikorik izango.



Puente irakasleak egoeraren azterketa zehatza egin zuen eta, bere ustez, Venezuela aurrerapen, ongizate eta ekitate herrialde berriro bihurtzeko balizko irtenbideak eskaini zituen.

5.11 Mahai-ingurua: “Feminismoa eta politika, Genero-ikuspegia politikarekin nola uztartu”

Itxaso Atutxa, EAJ-PNV alderdiaren Bizkai Buru Batzarreko presidentea; Izaskun Duque, EH Bilduren izeneko batzarkidea Bizkaian; Idoia Mendia, Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde eta PSE-EEko idazkari nagusia; Miren Gorrotxategi, Elkarrekin Podemos-IUko bozeramailea Eusko Legebiltzarrean; eta Laura Garrido, Euskadiko PPko idazkari nagusia, euren esperientziez mintzatu zitzaizkigun eta konpromiso irmoa azaldu zuten elkarrekin aurrera egiteko, generoaren ziozko diskriminaziorik gabeko gizarte baterantz. Eva Domaika kazetariak moderatu zuen jardunaldia.

Horretan, eztabaida bizia sortu zen emakume gisa politikan eta lan instituzionalean dituzten bizipenei eta aurkitzen dituzten oztopoei eta trabei buruz, eta erakundeek berdintasuna lortzeko

egiten duten lanari ekin zioten. Iritzi kontrajarriak izan zituzten gai batzuetan, baina guztiek bat egin zuten genero-bazterkeriaren aurka sarean lan egitearen egokitasunari buruz.



5.12 “Atzoko eta gaurko faxismoen aurka” hitzaldi-zikloa

Patxi Agirre historialari eta Historia Garaikideko masterdunak (apirilak 29), Aitor Esteban Kongresuko diputatuak (maiatzak 6), Iñaki Anasagastik, Joseba Rezolaren kolaboratzaileak Radio Euzkadi-n (erbestean) (maiatzak 13) eta Iker Merodio kazetari eta on-line marketineko aholkulariak (maiatzak 20) hitzaldi ziklo honen bidez aztertu zuten euskal abertzaletasunak totalitarismoari emandako erantzuna XX. mendearen hastapenetatik gaur egungo ideologietaraino.



Horrela, Patxi Agirrek Kristau Demokraziaren barruan EAJ-PNVren lehen urratsetara hurbildu gintuen, Manuel de Irujoren eskutik, joan den mendearen lehen erdian

Astebete geroago, faxismoaren agerpenaz/normalizazioaz Legebiltzarrean jardun zuen Aitor Estebanek, eta tirabira politikoa salatu zuen, Vox Kongresuan agertu eta azkar bai azkar hazi ondoren.

Iñaki Anasagastik, Joseba Rezolarekin batera Radio Euzkadiko kolaboratzaile izandakoak, euskal erbesteko pertsona esanguratsua hura ekarri zigun gogora, 1963 eta 1971 artean Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde izan zena eta euskal abertzaletasunaren ordezkaria Kristau Deokrazioaren esparruan, mundu



osotik zehar, beste hainbat karguren artean.



Azkenik, *Fake news eta politika. Ez ahaldundu edonor* izenburuaren ildotik, Iker Merodiok «fake new» kontzeptua azaldu zigun, eta sistema demokratikoarentzat benetako mehatxua dela ohartarazi, Merodioren iritziz; “izan ere, populismoak, sistemaren aurkakoak eta eskuin muturrekoak arrunt bilaka daitezten errazten dute, eta, horrela, gizarte osoari eragiten diote”.

eskutik

Sabino Arana Fundazioko Euskal Abertzaletasunaren Museoa, ekainaren 2an, Emakumeek egindako 10. zinema-jaialdiaren esparruan, «Khartoum offside» dokumentala eman zen.

Garazi Murua, Ainhoa Moraza eta Yulema Corres Athletic Clubeko jokalaria emanaldian izan ziren.

Aurtengo maiatzaren 31tik ekainaren 4ra bitartean, Bilbon ikusi ziren bederatziz filmetako bat da (bost film luze eta lau labur), Klaketa Arabiar ekoiztetxeak antolatzen duen eta Euskadin KCD euskal GKEaren laguntza duen Emakumeek egindako 10. zinema-jaialdiaren barruan.

Dokumentalaren emanaldiaren ondoren, bertaratutakoek Amal Ramsis zuzendari egiptoarrarekin hitz egiteko eta iritzia trukatzeko aukera izan zuten.



Saudi Arabiako Marwa Zein zuzendarial Jartumeko (Sudan) emakume gazte talde baten istorioa kontatzen du, herrialdeko gobernu militar islamikoak ezarritako debekua gorabehera, futbol profesionalean jokatzeko erabakia hartu duten emakume gazteen istorioa. Sudango emakumezkoen talde nazional gisa aitortu ditzaten, emakumeek beldurrari muzin egin beharko diote, eta adorea eta irmotasun izugarria erakutsi.

5.14 “Francisco Lorda Yoldi. Iruñeko bizilaguna eta zinegotzia (1877-1939)” liburuaren aurkezpena eta hitzaldiak (2)

Ekainaren 17an, Aitor Pescador Medrano historialariak Francisco Lorda Yoldiri buruzko azken liburua aurkeztu zuen Sabino Arana Fundazioan, ekainaren 10ean, eta Iruñeko Pamplona Catedral Hotelean, ekainaren 17an, Irujo Etxea elkartearen laguntzaz. 1917an, Iruñeko Udaleko zinegotzi hautatu zuten EAJko lehen kideetako bat izan zen, eta laster bihurtu zen ereduzko politikari.



Lordak landutako gai askori esker (ogiaren prezioa, La Pamplonesari emandako laguntza, etxe merkeak, bigarren zabalgunearen araudia, erruki-etxearekin etxearekin izandako arazoa...) oso lotura berezia ezarri zen gizarte-talde behartsuenetako hautesleekin, eta hala, karguari eutsi zion 1923ko iraileko estatu-kolpea izan zen arte; geroago, 1930eko krisian, berriro jardun zuen zinegotzi.

Familiak gorde duen Lorda artxibo-funtsa eta udal-aktak izan dira biografia politiko hau idazteko funtsezko oinarria. Bestalde, Lorda familiak bere garaian jakinarazi zuen funts horren dokumentazio guztia Sabino Arana Fundazioan gordetzeko asmoa zuela.

5.15 Buenos Aires hiriko *Laurak Bat* euskal etxean ikurrina jaso zeneko mendeurrena

1921eko uztailaren 9an, Buenos Aireseko *Laurak Bat* euskal etxeak, Argentinako euskal etxeetako zaharrenak eta diasporako euskaldunen erakunde nagusiak, ikurrina jaso zuen lehen aldiz, Euskal Herri osoaren ordezkartzan, ez ikur alderdikoi gisa.



Mugarri nazional horren mendeurrenean, urtemuga hori ospatzeko eta euskal diasporak Argentinari nahiz Euskadiri munduko geografian eta historian zehar egindako ekarpena aitortzeko, Sabino Arana Fundazioak eta Laurak Bat Euskal Etxeak baterako ekitaldia antolatu zuten Bilbon eta Buenos Airesen. Hala, aldi berean, ikurrin bi jaso ziren, bana aipaturiko hiriburuetan, bi-biak Laurak Bat etxetik hurbil dagoen Montserrateko Andre Mariaren parrokian bedeinkatuak. Gurean, Euskadin, Andoni Ortuzar EAJ alderdiaren EBBko buruak, Mireia Zarate Sabino Arana Fundazioaren presidenteak, Gorka Alvarez Eusko Jaurlaritzako Kanpoko Euskal Komunitaterako zuzendariak eta Oscar Alvarez Gila EHUKo Historiako doktore eta Amerikako Historiako irakasleak jaso zuten oihala. Gainera, Buenos Aires hiritik, Gabriel Anitua Laurak Bat euskal etxeko lehendakaria mintzatu zen.

5.16 “A presenza de Castelao en Euskadi. Un líder carismático para os vascos” eta “Castelao y os vascos” liburuen aurkezpena

0Xosé Estévez historialari eta Deustuko Unibertsitateko irakasle emerituak eta Iñaki Anasagastik, Adolfo Muños Rianxoko (A Coruña) alkatea lagun zutela, Castelao eta euskaldunei buruzko liburu bana aurkeztu zuten irailaren 30ean SAFen: «A presenza de Castelao en Euskadi», Xosé Estevezena; eta «Castelao e os vascos», Iñaki Anasagastirena, hurrenez hurren.

Izan ere, Castelao, galegismoaren aita, oso pertsona ezaguna da Euskadin. Harreman estua izan zuen, XX. mendearen erdialdera arte, politikari ugarirekin eta euskal herritarrekin: EAJ, EAE-ANV, errepublikarrak, Eusko Jaurlaritza, ordezkariak, argitalpenak... Ez zen alderdi bakar batekiko harremanak lantzerantz mugatu, ezpada, erbestean zegoen herri batekikoak, askotariko agerpenak direla bide. Euskaldunekiko harremana, hortaz, ez zen inola ere alderdikoa izan.





Galiziaren eta Euskal Herriaren arteko adiskidetasun horrek gaurdaino dirau, Xoséren eta Iñakiren hitz hunkigarrietan agerian geratu zen bezala.

5.17 Afrika eta kontinentearen demokratizazioaren arazoa: Angolako kasua

Urriaren 14an, Virgilio Samakuva UNITAko (Angolaren Independentzia Osorako Nazio Batasuna) ordezkariak Espainiako estatuan, Sabino Arana Fundaziora etorri eta hitzaldia eman zuen Fundazioaren egoitzan. Bertan, Samakuvaren herrialdea (Angola) demokratizatzen laguntzeko nazioarteko eragile nagusien esku hartzearen garrantziaz aritu zen.



UNITAko ordezkariak kontinentearen ibilbide historikoa jorratu zuen: Afrikako konkistaren hasiera –eta konkista horrek kontinenteko herri guztiei ehunka urtetan ekarri ziena– Berlingo Konferentzia, (1884-1885), europarren kolonizazioa eta merkataritza arautu zuena, eta joan den mendearen 60ko eta 70eko hamarkadetan hasi zen deskolonizazioa.

Samakuvak uste osoz agertu zuen UNITAk, oposizioko alderdi nagusiak, Angolaren demokratizazioan eta arlo guztietako ustelkeriaren aurkako borrokan izan behar duen eginkizuna biziki nabarmena dela, borroka hori lotuta baitago, ezinbestean, demokraziarekin.

Era berean, Samakuvak «Jonás Savimbi-ren eskolan. Angola hobearen alde» liburua aurkeztu zuen. Liburuan, 1975 eta 2002 urteen artean, Afrikako herrialdea hondatu zuen gerra zibilean izandako bizipenak kontatu zituen egileak.

5.18 Gudariak oroitu eta omentzeko jardunaldiak Azpeitian eta Eibarren

Gerra Zibilean, bereziki, Gipuzkoako lurraldean, altxamendu militarren eta faxismoaren aurka borrokan egin zuten gudari, miliziano, gizon eta emakumeak omentzeko eta oroitzeko helburuz, urriaren 13tik azaroaren 1era, gertaera haiei buruzko oroitzapen-ekitaldi batzuk antolatu genituen.

Urriaren 13an, Azpeitiko Udalaren erakusketa-aretoan, gerra zibilari buruzko argazki-erakusketa bat inauguratu zen, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Azpeitiko Munoandi kultur elkarteak eta Sabino Arana Fundazioak elkarrekin antolatuta. Urriaren 19an, erakusketa-aretoan bertan, 19:00etan, Juan Beistegi Loyola batailoiko komandantearen oroitzapen-liburua aurkeztu zen: “366 egun borrokan Euzkadiren alde. 1936-1937”). Aurkezpen-ekitaldian, ondokoak izan ziren: Iñaki Txapartegi, Azpeitiko EAJ-PNV alderdiaren uri Uri Buru Batzarreko presidentea; Jon Gamba, Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideen eta Kultura Demokratikoaren zuzendaria eta Mireia Zarate, Sabino Arana Fundazioaren presidentea. Era berean, Aitor Miñambres Berangoko Burdin Hesiaren Oroimenezko Museoaren zuzendaria eta liburuaren argitalpenaren koordinatzaileak eta Ione Zuloaga Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak Gipuzkoako gerrari buruzko hitzaldi bana eman zuten.



Astebete geroago, urriaren 26an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Eibarko EAJ-PNV alderdiaren eta

Sabino Arana Fundazioaren eskutik, erakusketa Eibarko Unzaga Plaza hotelera eraman zen.

Aipaturiko bi udalerriotan, argazki-erakusketaz gain, Azpeitiko eta Eibarko herriekin lotutako gerrako objektu historikoak eta dokumentuak jarri ziren ikusgai erakusketan. Beren-beregi jarritako beira-arasetan, Euzko Gudarostearen Loiolako kuartelari lotutako dokumentuak erakutsi ziren, bai eta euskal fronteetako egoerari buruzko gerrako agiriak ere, besteak beste, Eibarri zegozkionak, gudarien txartelak, egunkariak eta abar.

Hurrengo egunean, urriaren 27an, Juan Beistegiren oroitzapen-liburua aurkeztu zen hotelean bertan, Eibarko EAJ-PNV alderdiko presidente Isabel Elorza, Mireia Zarate eta Jon Gambraren eskutik. Aurkezpenaren ondotik, Aitor Miñambresen eta Ione Zuloagak Gipuzkoako gerra zibilari buruz eta *Loyola* batailoiko komandante Juan Beistegiren bizipenei buruz jardun zuten.

5.19 Bi hitzaldi, Helduak elkartearekin lankidetzan

Sabino Arana Fundazioak eta Helduak elkarteak lankidetzan egungo adinekoak kezkatzen dituzten gaiei buruz antolatu ohi dituzten hitzaldien esparruan, azken hiruhilekoan bi hitzaldi eskaini dira: mendekotasuna duten pertsonen zaintza eta nutrizioa.



Lehen hitzaldian, “Zure burua zaindu, zaintzeko” Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza Saileko zinegotzi ondoko Iñigo Zubizarretak eta ZAINTZIA Senide zaintzaileentzako Bilboko Udalaren laguntza-zentroko Ana Tejedorrek eta Erika Leonek programa honen helburu nagusiak aztertu zituzten urriaren 21ean. Izan ere, beste batzuk zaintzea bezain garrantzitsua baita nor bere burua zaintzen jakitea. Adituek Helduak elkarteak kideei eta gainerako bertaratuei adierazi zieten garrantzitsuen jarrera dela: “egunari aurre egiteko jarrera baikorrak izugarri laguntzen du”.



Azaroaren 10ean, “Ondo jan eta hobeto bizi” izenburuko hitzaldian, Medikuntzako doktore eta Nutrizioko aditu Miren Marínek elikadura onaren garrantzia azpimarratu zuen, gure osasunari eusteko ez ezik, patologia ugari prebenitzeko ere bai. “Helburua dietetika terapeutiko bikaina izatea da, osasunaren eta gaixotasunaren arteko balantzak osasunaren alderantz egin dezan”, adierazi zuen Marínek.

Helduak eta SAF erakundearen elkarlanari lotutako hurrengo topaldian Segurtasuna jorratu zen, Ertzaintzako adituen eskutik.

5.20 “Ganbara argitua. Emakumeen ahotsak eta oihartzunak” liburuaren aurkezpena eta hitzaldia

Alazne Díez Muñiz antropologoak 1935 eta 1952 urteen artean jaio ziren eta garai zail samarretan nabarmendu ziren 13 emakumeren testigantzak bildu ditu bere azken lanean.

Liburu horretan jasotako lekukotasunek eta bizipenek agerian uzten dute euretariko bakoitza bizi izan zeneko garaia eta une hartako ingurumari politikoa, ekonomikoa, soziala eta kulturala, eta agerira ekartzen dute emakume horien sakrifizioa, ahalegina eta borondatea gurendutako helburuak erdiesteko. Alazne liburua egitera gogatu duen nahietako bat “generoen arteko berdintasuna eskuratzeko egin diren urrats behinenetako batzuk ezagutzeko irrika izan da, egin gabe daudenak aztertzeke grina eta ekitatea egiazkoa izan dadin garatu beharreko jarraibideak ikusarazteko gogoa”.



“Zinez espero dugu emakume haien ahotsen edukiak eta aurretik izan zituztenen oihartzunak agerira ekartzen duten hausnarketak onuragarriak izan daitezen andre horien guztien lanari balioa emateko eta eredu, itsasargi edo gidalerro izan daitezen etorkizuneko belaunaldientzat” adierazi zuen Alazne Díezek liburuaren aurkezpena Fundazioaren egoitzan egin zutenean, joan den urriaren 20an.

5.21 “Somos comunión” liburuaren aurkezpena eta hitzaldia



Iñigo Bolinaga idazle eta historialariak bere azken liburua, «Somos Comunidad», aurkeztu zuen Sabino Arana Fundazioan. Lana azken karlistaldian girotuta dago, hau da, euskal historiako garai erabakigarri batean, foruak sasoi hartan indargabetu zirelako.

Gertakarien korapiloa liburuko protagonistek eurek garatzen dute kontakizunean: gerrak erdian harrapatutako Bizkaiko barrualdeko landa-eremuko familia bateko lau anai-arrebek. Liburuan, Martin, Adrian, Gracia eta Leonardo neba-arreben ibilerak kontatzen dira, horietako bakoitzaren nortasuna azalduta, azkenean, foruak indargabetu ziren testuinguru historiko baten bilbean.

5.22 AMIAB dokumentala, Alex Txikonen eskutik: “Gailurra bidea da”

Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak “La cumbre es el camino” dokumentala aurkeztu zuen Euskadin. Bertan, adimen-urritasuna duten hiru mutilek Everesteko kanpamentu nagusira egindako lehen espedizioa kontatzen da, 5.600 metroko garaieran. Lehen trekking inklusiboa da planetako mendilerro garaianera, Himalaiara.

Abentura honetako hiru protagonistak Juan Alejandro Martínez, Jesús Bermúdez, eta José Urbano Aparicio dira. Hiru gazteak Alex Txikon euskal alpinista ezagunarekin joan ziren Everestera, neguan igotzeko asmoz egindako lehen etapan, oxigenorik gabe.



Bidea adimen-urritasuna duten 20 urteko hiru mutilen abentura da, amets bat betetzeko borrokan: hesiak hautsi eta euren hiritik, Albacetetik, Nepalera bidaiatu Lukla hiritik Ama Dablam mendiaren oinetaraino. Hamabi egun oinez, 100 kilometroko ibilbidea desnibel handiarekin, zero azpitiko 20 graduko tenperatura, 5.500 metrotik gora... Mutilek Kirol Merezimenduaren Domina jaso dute balentria horretan parte hartzeagatik.



Espedizio horretan, Ramón Portilla eta Oscar Cardo alpinistek ere parte hartu zuten. AMIABek proiektu honetan duen lankidetzaren helburu nagusia desgaitasuna duten pertsonen esperientzia paregabe baten bidez ikusgarritasuna ematea da, horrela, zeinahi erronka, nahiz eta zaila izan, lor daitekeela erakutsi.

5.23 “Alejandro Elizalde. Nafarroako jeltzale bat nazien kontzentrazio-eremuetan” hitzaldia

Abenduaren 10ean egiteko begiz jota zegoen, baina bertan behera geratu zen egin horretan bertan, Euskal Herrian izandako euri-erauntsiagatik.

5.24 Bekadunak eta praktikaldiko ikasleak: 3-4 hitzaldi

Bekadunekin eta praktiketako ikasleekin topaketak egitea, beren prestakuntza-premiei erantzungo dieten eta beren garapen pertsonal eta profesionalerako beharrezkoak diren tresnak eskainiko dizkieten eta lan-esperientziara hurbilduko diren gaiei buruz. Bi jardunaldi egin dira.

6 GAZTERIA

6.1 Nor gara gu? erakusketa

Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak “Nor gara gu?” erakusketa erdi-iraunkorra inauguratu du 2021ean Sabin Etxean. Eta galdera horri erantzuteko, gure kulturaren, gure hizkuntzaren, mundua ikusteko gure moduaren, gure egungo gizartearen sorreran emakumeek izan duten garrantziaren eta gure ikurren txatalak erakutsi nahi dira, gure sustraietan barrenako ibilbide zoragarria eginda. Hori guztia objektu, argazki, dokumentu, argitalpen eta abarren bidez.



Dohaintza-emaileak funtsezkoak dira Sabino Arana Fundazioarentzat, emailerik gabe, ezin izango litzatekeelako erakusketa hau antolatu. Dohaintzak dira gure Museoaren bihotza, eta taupada bakoitza esker oneko erakusgarria da gure izatearen funtsa berreskuratu, zaindu eta zabaltzeagatik lagundu duten pertsona guztientzat.

Gure eginbeharra da emaila guztiek emandakoetatik gure instalazioetan bildutako ondare hori zaintzea, jagotea eta zabaltzea.

Guztira, hamalau beira-arasa, azalpen-panela eta hirurehun objektu, dokumentu, argazki... baino gehiago. Erakustoki bakoitzean, QR kodea eskaneatzeko erretilua dago. Bertan, bisitariak artikulua deskargatu ahal izango ditu, baita dena delako gunean jorratzen den gaiari buruzko informazio gehiago ere.

Erakusketa bi solairutan banatuta dago eta bi gai jorratzen ditu. Atartearen esparruan, etxearen historia (Sabin Etxearena) azaltzen da eta azken dohaintzei eskainitako gunea dago, berritzen joango dena.

-1 solairuan, erakusketa 5 gunetan banatuta dago, eta honako gai hauek jorratzen dira:

1. GUNEA

- **Aberri Eguna 1932.** Euskal abertzaletasuna aldarrikatzeko ekitaldia, erakusketa ikusgai dagoen lekuari guztiz lotutakoa.
- **EAB.** Euren eskubideen alde borrokan egin zuten eta, gaur egun, emakumeok izan nahi duguna izan gaitezen lortu zuen emakumeen lehen erakundea.

2. GUNEA

- **Euzko Gaztedi/Mendigoizaleak.** Euskara eta gure tradizioak zabaldu eta diktadura frankistaren errepresaliak gorabehera, babesten lagundu zuten gazte-elkarteak.
- **Gerra Zibila.** Euskadiko herritarren bizitzan egundoko eragina izan zuen gertakizuna.
- **Eresoinka.** Kultura baliatuz, Euskaditik kanpo gure nortasuna zabaldu eta aldarrikatzeko sortutako taldea.

3. GUNEA

- **Klandestinitatea.** Errepresioaren aurrean, euskal abertzaleen eguneroko bizitzaren eta borroka demokratikoaren hainbat alderdi erakusten dira.
- **Euskara.** Gure jatorri eta oinarri nagusia. Urteetako ibilbidea, gure hizkuntza ofizialdu eta normalizatu zen arte.

4. GUNEA

- **Gure kulturako pertsona nabarmenak.** Gune hau berrituz joango da, baina beti lotuko zaie gure kultura eta hizkuntza zabaldu eta ezagutarazi duten pertsonari. Gunea pertsona baten bidez aurkeztuko da. Estreinako aldiz, Esteban Urkiaga *Lauaxetari* eskaini zaio: olerkaria, euskararen bultzatzailea, emakumeen aldarrikapenen aldekoa, gudaria eta fusilatuetakoa euskaldunen eskubideak eta askatasuna defendatu nahi izateagatik.
- **Diaspora.** Aberritik kanpo egon arren, gure kultura eta identitatea iraunarazi eta zabaldu duten euskal herritar guztiei eskainitako gunea.
- **Euskadi-Europa.** Beira-arasa honek, nolabait esanda, erakusketa osoa biltzen du eta gaurkotasuna ematen dio: informazio historikoa nahiz gaur egungo dokumentu eta objektuak ikusgai daude bertan.

5. GUNEA

- **Ikurrina.** Gure aberriaren ikur nagusiak historian izan dituen bilakaera eta gorabeherak erakusten dira.

Erakusketa jende guztiarentzat eskuragarri egongo da. Euskal Abertzaletasunaren Museoak herritar guztiei hurbildu nahi die gure erakusketa-proposamen berria. Horregatik, museoaren programa bat etorriko da horrekin, karpeta didaktiko bat izango dugu irakasleentzat, ikasgelan landu ahal izan dezaten. Karpeta horrek ikasturteko hainbat curriculum-etapa beteko ditu, eta hainbat hezkuntza-tailer ere egingo ditugu, museoko objektuekin eta gaiekin zerikusia duten hainbat gai historikori buruzkoak.

Gazteentzat bi jarduera mota garatuko ditugu, bata ikasleei zuzendua, kontserbazioari buruzko hitzaldien bidez. Hitzaldi horiek Euskal Herriko Unibertsitateko unibertsitateko irakasleen aholkularitzarekin landuko ditugu, eta bestea ekintzaile gazteei eskainitako gunea izango da.

Gure jardueretan hainbat adin-tarte hartzen dituzten atalak sortuko ditugu, eta horrela herritar guztiei gai interesgarriak eskainiko dizkiegu.

6.2 Tailer didaktikoak eta ahozko historiari buruzkoak

Gure aurtengo asmoa izan da eskaintza didaktikoa zabaltzea, publiko guztiarentzako tailerrak eskainita, unibertsitateko ikasle eta adinekoengana zabalduz.

Bigarren zikloko eta Batxilergoko ikasleei zuzendutako historia-tailerrak egitea ere aurreikusi dugu, gure eskaintza ikastetxeetako curriculum-eskarira zabalduz, baita argazkigintzaren printzipioak (kamera bat egitea eta irudiak errebelatzea) ezagutzeko tailerrak ere.

Illo horretan, sei ataletan bildutako tailerrak antolatzea aurreikusi dugu:

1) ETORKIZUNA ERAIKITZEN: IZAN GARELA KO IZANGO DIRA CONSTRUYENDO EL FUTURO

- Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzaz, gerraren ondorioetan sakontzeko tailerrak: hobien kokapena, DNA analisiak.
- Bilbo eraikitzen, Bilboko iragana eta oraina ezagutzea, atzoko eta gaurko irudiak uztartuz.
- Tailer honetan, Gabonetako zorion-txartela sortuko dugu Pika-Pika teknika erabiliz.

2) EUZKADI MUNDUAN

- Kanpo harremanak, nazioarteko harremanak, migrazioak, erbestea.

3) ARTEA ZIENTZIA TEKNOLOGIA BERRIKUNTZA ARTE CIENCIA TECNOLOGIA INNOVACIÓN

- Kamera estenopeikoa egitea kartoizko kutxa bat erabiliz, argazki-kamera tradizionalen printzipioak garatzeko.
- Kamera estenopeikoa sortu eta irudiak errebelatzea, argazkigintzaren munduan murgiltzeko, irudiaren historian zehar ibilbidea eginez. Lehenik eta behin, kamera bat eraikitzen da, eta, ondoren, argazki propioak egiten dira. Ondoren, tailerrari amaiera emateko, argazkiak errebelatzen dira.
- Tximistargazkia. Ezohiko beste ikuspuntu batetik landuko dugu argazkigintza, argazki-kamerarik erabili gabe irudiak lortuz.

4) IDAZTEA ETA AMETS EGITEA NURREN AMAMAREKIN ESCRIBIR SOÑAR CON LA AMAMA DE NUR

- Tailer hau Toti Martínez de Lezea idazlearekin elkarlanean egiten da, eta benetako istorioen bidez irakurtzeko ohitura motibatu eta sustatu nahi du.

5) MENDE BERRIKO ESKOLA: KULTURARTEKOTASUNA LA ESCUELA DEL NUEVO SIGLO: MULTICULTURALIDAD

- Taumatropoa irudietan mugimendu-sentsazioa sortzeko erabiltzen den jostailu optikoa da.
- Kolore hiperkonektatuak. Kolorea lerro abstraktu eta esperimentalenean landuko dugu, material ezberdinak erabiliko ditugu gatzaren eta tenperen laguntzarekin erliebean egindako marrazki bat sortzeko.
- Gabonetako txartelak. Gure ohituren zati bat berreskuratu nahi dugu Gabonetako zorion-txartelak eskuz eginez.
- Hamma Beads. Gabonetako apaingarriak sortuko ditugu, kolore desberdinetako plastikozko pieza txikiak jarritz irudiak sortuz, 3Dko irudiak osatuz.

6) HISTORIA: EZAGUTU ERALDATZEKO CONOCER PARA TRANSFORMAR

- Burdinazko hesia interpretatzeko zentroa. Gerraren historia eta ondorioak landuko ditugu.
- Arboglifoak. Horien bidez, euskal artzainen emigrazioaren historian sartuko gara, batez ere Ameriketakoan, eta arboglifoak zertan dautzan azalduko diegu.
- Picassoren Gernika. Hemen euskal historia landuko dugu eta nazioarteko artista garrantzitsuenetako bat hurbilagotik ezagutuko dugu. Tailer hau, lehenik eta behin, bakarkako lana izango da, eta tailerraren amaieran talde-lan bihurtuko da. Banakako marrazki bakoitza elkartuz eta horma-irudi bikaina sortuz.

6.3 Etorkizuneko lan-giltzarriak

2021ean, berariazko tailer batzuk antolatu ditugu:

1) Unibertsitateko ikasleentzat: “**Museoko materialen bizitza**”, ondokoak eskainita:

- Prebentziozko kontserbazioari buruzko hitzaldia.
- Ehunen kontserbazioari buruzko hitzaldia.
- Paperaren kontserbazioari buruzko hitzaldia.
- Zurezko materialaren kontserbazioari buruzko hitzaldia.
- Pinakotekako eta eskulturako kontserbazioari buruzko hitzaldia
- Lan-mahaia, ondoko parte-hartzaileekin:
 - Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko kideak.
 - EHUKo irakasleak
 - Arloko profesionalak
 - Ikasleak (praktiketan aritutakoak).
- Komisariotzari buruzko hitzaldia.
- Lanak tasatzeari buruzko hitzaldia.

2) Nagusi eta adinekoentzako tailerrak

- Euskal artzainen emigrazioaren historiari buruzko tailerra, batez ere Ameriketara egindako emigrazioari buruzkoa.
- Oso ohikoa ez den beste ikuspuntu batetik egindako argazki-tailerra, argazki-kamerarik gabeko irudiak lortzeko erabiltzen den teknika guztiz desberdina.
- “Museoko pinakoteka ezagutu” tailerra, Roberto Landeta akuarelistaren eskutik. Margolariak, koadroak eta teknikak ezagutu eta gure instalazioetan klase praktiko bat egin ahal izango dute ikasleek, museoko bildumako margolan original batean oinarritutako eta aurretik aukeratutako lan bat eramanez.
- Hitzaldia: "ehunak zaindu, jagon... mimatu".

Hitzaldi honen bidez, gure ehunak jagoteko jarraibideak eman nahi ditugu. Ehunen kontserbazioa ahalegin handia izan da beti. Zuntzak erabiltzeak, gaizki biltegitratzeak, parasitoei eta pixkanaka hondatzeak, epe luzera, pieza suntsitzea eragiten dute.

Tradizioz, ehunak zorrotz zaindu izan dira bizitza baliagarria luzatzeko. Gaur egun, jardunbide horiek galdu ditugu, erabili eta botatzea egunerokoa bihurtu da. Jardunbide zaharrei heltzen badiegu eta gaur egungo prozeduretara egokitzen baditugu, gure jantzien bizitza luzatu ahal izango dugu.

Gainera, ehuneko pieza ugari gorde behar ditugu, etorkizuneko belaunaldiak euren iragana ezagut dezaten (familiakoa, soziala, historikoa, ikonografikoa) eta euren etorkizuna eraikitzeko oinarri aktiboa izan dadin.

Eta gure ehun-bitxiak zaintzen lagunduko digun zati praktiko batekin osatuko dugu solasaldia.

DESKRIBATUTAKO JARDUEREN HELBUR OROKORRAK

- Gizarteari ezagutaraztea Euskal Herriaren alderdi sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalen alderdirik garrantzitsuenak, arreta berezia eta lehentasuna emanez egungo eztabaida publikoan eragin handiena duten gaiei.
- Jakintza zabaltzea eta partekatzea hainbat jakintza-arlotatik.
- Gaitasun kritikoa garatzea: egungo gizarateak kritikarako eta bere ingurunea aztertze gaitasun handia duten pertsonak behar eta eskatzen ditu. Giza garapenaren alderdi hori funtsezkoa iruditzen zaigu gazteen prestakuntzaren zati gisa, eta ezinbestekoa helduak sozialki arduratsuak izan daitezen.
- Azaltzen diren erronka eta aukera berriei erantzuten saiatzea.

7

EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA

I. AGIRITEGIAREN KUDEAKETA

Pandemian urtebetez bizi izan garen arren, 2021ean dokumentazioa jasotzen jarraitu dugu, Agiritegian gordetzeko, antolatze, deskribatzeko eta ikertzaileen esku jartzeko. Ikertzaileei arreta telematikoa eta aurrez aurrekoa eman zaie.

Lau Haizetara – Ateak Zabalik ekimenak, 2020ko apirilean hasi zenak, aurtengo ekitaldi osoan zehar jarraitu du, gure webgunetik (<https://www.sabinoarana.eus/Ateak-Zabalik>) askotariko baliabideak erakutsiz (dokumentuak, argazkiak, bideoak, albisteak, efemerideak, etab.),

erabiltzaileengana online hurbiltzeko eta, horrela, guztiongandik hurbilago egoten jarraitzeko eta gordetzen ditugun ezagutzak partekatzeko.

Hilabete batzuk lehenago etxetik lanean egon ginenean bezala, datu-baseak, deskribapen-tresnak eta abar era telematikoan bideratuz, gure denboraren zati bat duela 30 urte baino gehiagotik gordetzen ari garen gure dokumentu-funts handia berrikusten eman dugu. Eta espazioa berrantolatzen hasi gara, bai Bilboko gure instalazioetan, bai Arteako urrutiko gordailuan, Fundazioaren beraren funts editoriala eta Biblioteka eta Hemeroteka berrikusiz, “urrunekoak” izenekoak, hain zuzen ere Bizkaiko herri horretan lekututa daudelako. Lan hori ez da oraindik amaitu, eta datorren urtean jarraituko da.

Bestalde, Fundazioak jarduera handiagoa egin du mintegiak, hitzaldiak, liburuen aurkezpenak eta abar antolatzen eta egiten, eta, horrez gain, sektore horretako langile batek behera egin du. Hori dela eta, dedikazioa kendu zaio beharrian horiei erantzuteko dokumentazioarekin, artxiboko langileekin.

Aipatzekoa da, halaber, Agiritegiko eguneroko jarduerarekin batera, 2021ean hiru (3) gaztek egindako praktikak prestatu eta gainbegiratu ditugula: graduko bi ikasle (soziologian eta kazetaritzan) eta lan-trantsizioa bekadun bat.

A) AGIRITEGIKO FUNTSAK

Honako dokumentazio hau antolatzea (sailkatzea, deskribatzea eta instalatzea):

- EAJ-PNV alderdiaren ABBren agiritegia. Lehenengo aldia:
 - Espediente eta txostenen deskribapena/Arabako udal-erakundeekiko harremana.
 - Arabako EAJ-PNVren Lurralde Batzordearen aktak antolatu, erregistratu eta instalatzea (1977-2010).
- Iñaki Anasagasti: Xabier de Landabururen jarduerari eta haren obra osoen argitalpenari buruzko dokumentazioa. Gutuneria ugari.
- Etxebarria familia: Juan Etxebarria Gangoiti politikariaren dokumentazioaren inbentarioa
- Jose Joakin Azkarate: Jose Azkarate Etxandi nafarraren artxiboa (1878-1957)
- Norbanakoen dohaintzetatik datozen beste funts historiko batzuen deskribapen dokumentalerako 180 fitxa erregistratzea, besteak beste, Txomin Aurrekoetxea, Jean Claude Larronde, Julio Jauregui Alonso edo Iñaki Anasagasti.

B) LIBURUTEGI KO FUNTSAK

Aurten **528** obra berri sartu dira Liburutegian. Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiko Liburutegia osatzen duten monografiak **46.486** dira gaur egun. Hala ere, kopuru horretatik, 35.000 liburu daude Bilboko instalazioetan bilduta; gainerakoak, 11.000 baino gehiago, Arteako urrutiko biltegian daude.

Duela urte batzuetatik egiten ari garen moduan, Bilboko gordailuan ale bakarra gordetzen da lan bakoitzaren edizio bakoitzeko, baldin eta gaia eta edukia bat badatoz gure liburutegi espezializatuan ezarritako irizpideekin. Gainerako monografiak Arteako urruneko liburutegira eramaten dira (balioa kontserbazioagatik, bikoiztasuna gorabehera) edo beste helmuga batzuetara bideratzen dira.

Ekitaldi honetan, Sokunde Arregi (Kirikiño argitaletxea, Txomin Saratzagarena), Jose Manuel Bujanda, Gaintza edo Txomin Aurrekoetxearen dohaintzetatik datozen liburuak nabarmendu dira, besteak beste.

Arestian aipatu bezala, atal honetan Arteako urruneko liburutegia birsailkatzeko lanak aipatu beharko lirateke (balorazioa eta banaketa/kokapen berria, kasuen arabera); hurrengo hilabeteetan amaituko dira.

C) “UZTURRE” HEMEROTEKA

Urtean zehar jasotako aldizkako argitalpenen aleak erregistratzen eta katalogatzen jarraitu dugu. Aleak banan-banan sailkatu, ordenatu eta egiaztatze lanak egin ondoren, errepikatuta dauden ala ez jakiteko. Hala, 15 titulu berri gehitu dira Hemerotekan 2021ean. “Uzturre” hemerotekak, 500 metro linealetik gorako biltegia duenak, orain arte **7.401** titulu ezberdin ditu eta **192.872** ale bilduta.

Bestalde, “Hustuketa” datu-basea (informazio historikoa duten artikulak, hainbat argitalpenetan argitaratuak –Euzkadi, Alderdi, Hermes, Bizkaitarra, Deia, Euzko Deya...) dagoeneko **14.678** erregistrotara iritsi da.

II. KONTSULTAK

2021ean, **231** informazio-eskaera jaso dira Abertzaletasunaren Agiritegian, aurreko ekitaldiren ildo beretik (hau da, kontsulta gehienak posta elektronikoz (120) eta telefonoz (60) egin dira, aretoan zuzenean (20) edo gure web-orrian dauden formularioak erabiliz (25) baino. Bitxikeria gisa, esan dezagun aurten ere 6 kontsulta jaso direla WhatsApp bidez.

Oroimen Historikoaren inguruko informazio-eskaerak nagusi dira: gerraren, erbestealdiaren edo norbanakoen (gudariak, presoak, desagertuak eta abar) ingurukoak. Aipatutakoen familiartekoek, erakundeek, hedabideek zein komunikazio-enpresek egin ohi dituzte eskaerak, informazioa ikerlan, urtemuga, proiektu, lan zehatz eta abarretan erabiltzeko.

Agiritegian urtero-urtero jasotzen diren kontsultei dagokienez, esan dezagun (urtero adierazten dugun moduan) informazioa kontsultatzeko eskaera egin eta gure erantzunean hartutako datuak aztertu ondoren, agiritegira jatorrizko agiriak ikusten datozenak ere zenbatzen direla. Aretoko erabiltzaile horien □ ikertzaileak, erakundeetako ordezkariak, irakasleak, ikasleak eta/edo norbanakoak □ izen-abizenak eta ikergaia jasotzen dira ikertzaileei eskainitako oroitza-txostenaren azken atalean. Ikergaien zerrenda, argi denez, urtean izandako kontsulten erakusgarri eta laburpena da.

Horra hor jasotako kontsulten banakaketa:

JASOTAKO KONTSULTEN BANAKAKETA		
Norbanakoak: 103	Unibertsitatea / Ikerkuntza: 47	Gizarte- eta Kultura-erakundeak / Euskal Administrazio Publikoa: 33
Hedabideak: 16	Enpresak / Ekoiztetxeak: 9	PNV / SAF: 23

1992ko urritik hona, **6.895** kontsulta jaso dira guztira agiritegian.

III. HISTORIA ETA DOKUMENTAZIOARI BURUZKO AHOLKULARITZA

Lankidetzak, solasaldiak, hitzaldiak, jardunaldietako parte-hartzea, argitalpenen kontrola, ikerketan koordinazioa...

Hedabideekiko kolaborazioak eta beste ekitaldi batzuk:

DATA	EKITALDIA	PARTAIDEA(K)
2021/01/30	Elkarrizketak Onda Vascan, 15 egunean behin, hainbat gai historikori buruz.	Guezala, Luis de; Zarate, Mireia
2021/04/14	Elkarrizketa Bizkaia Irratian Errepublikaz hitz egiteko (90. urteurrena).	Goiogana, Iñaki
2021/04/15	Hitzaldia, Zoom bidez, Londresko Euskal Etxearentzat, Londresko euskal ordezkariaren historiari buruz.	Goiogana, Iñaki
2021/06/07	Gregorio Arrienen liburuari buruzko elkarrizketa Bizkaia Irratian.	Goiogana, Iñaki
2021/08/18	Elkarrizketa Euskadi Irratian bainuetxeei buruz.	Goiogana, Iñaki
2021/08/27	Joseba Elosegiri eta Anoetako immolazioari buruzko elkarrizketa Euskadi Irratian.	Goiogana, Iñaki
2021/09/19	Bisita eta erakusketaren azalpena Zirardamendin.	Goiogana, Iñaki
2021/09/22	Memoriari buruzko jardunaldian parte-hartzea Gogora Institutuan.	Guezala, Luis de
2021/10/19	366 egun borrokan Euzkadiren alde liburuaren aurkezpena Azpeitian (Loyola batailoiko komandante Juan Beistegi Ugaldere oroitzapen-liburua), eta Aitor Miñambresen eta Jone Zuloagak (Aranzadi) emandako hitzaldia.	Goiogana, Iñaki
2021/10/21	Aranzadik, EHUK eta Giza Eskubideen Unesco Katedrak Bizkaia Aretoan antolatutako "Historia, Giza Eskubideak eta indarkeria politikoa" jardunaldian parte hartzea (egun osoan).	Jauregi, Eduardo
2021/10/22	Aranzadik, EHUK eta Giza Eskubideen Unesco Katedrak Bizkaia Aretoan antolatutako "Historia, Giza Eskubideak eta indarkeria politikoa" jardunaldian parte hartzea.	Guezala, Luis de
2021/10/27	Gerra garaiko haurren ebakuazioei buruzko hitzaldia Gernikan.	Goiogana, Iñaki
2021/11/01	Dolores Ibarruriri buruzko elkarrizketa Bizkaia Irratian.	Goiogana, Iñaki
2021/11/17	Memoria Historiko Demokratikoaren Lege Berriari, haren edukiei eta egungo egoerari buruzko bilera Gobernuaren Gasteizko Ordezkaritzan.	Jauregi, Eduardo
2021/12/05	Gregorio Arrienen "Escuela de barriada" liburuaren aurkezpena Durangoko Azokan	Goiogana, Iñaki
2021/12/14	SAFek antolatutako "Euskal pinturaren memoria" mintegian hizlari gisa parte hartzea.	Guezala, Luis de
2021/12/15	Joseba Rezolari buruzko erakusketaren inauguraziora joan zen Ordizian, haren heriotzaren 50. urteurrenean.	Jauregi, Eduardo
2021/12/16	Joseba Rezolari buruzko elkarrizketa Onda Vascan.	Jauregi, Eduardo

Deia: urte osoan, asteroko artikulua Historias vascas sailean argitaratzeko, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegitik koordinatua 2009tik.

ARGITALPENAK:

- Juan Beistegi Ugaldere: 366 egun borrokan Euzkadiren alde.
- Juan Beistegi Ugaldere: 366 días de combate por Euzkadi.
- “Alejandro Eleizalde. Un jeltzale navarro resistente en los campos nazis”

IV. NORBANAKOEN DOHAINTZAK

2021ean, **36** pertsonak eta/edo erakundek bat egin dute Abertzaletasunaren Agiritegiarekin dokumentazioa emanda. Kopuru horretatik, **15** emaila berri izan dira aipaturiko ekitaldian.

Bolumenagatik, ARABako EAJ-PNV alderdiaren (Araba Buru Batzar) lurralde-antolaketaren artxiboa azpimarra dezakegu, Batzarraren zein Lurralde Batzarraren bileren akta-sortekin, sarrera-eta irteera-gutunekin, udal-erakundeekiko harremanekin, hauteskunde-espedienteekin eta abarrekin. 1977 eta 2010 artean sortutako dokumentazioa.

Orain arte, guztira **1.569** dohaintza jaso dira Agiritegian.

V. IKERTZAILEAK

2021ean, **36** ikertzailek kontsultatu dituzte gure dokumentu-funtsak aretoan (iaz bezala).

Ikergaiak honako hauek izan dira:

IKERGAIAK

Euskal Herriko historiaren laburpena / langileen mundua / Nikoleri gezurra

Radio Euzkadi - La Txalupa

Euroeskualdearen hastapenak

Osasun Militarra Orozkon

Basque Nationalism / Tesis: "Memory and identity in the former Yugoslavia, Northern-Ireland and Basque Country"

Jean Elissalde

EAJ-PNV alderdiaren historia (irudi finkoak eta mugimenduan)

WINNIPEG lurruntzia

Bonifacio Echegaray Corta

Iñigo Urkulluren agiriak: bitartekaritza Kataluniako *Proces* delakoan

Jacinto Toryho, Argentinan erbesteratutako kazetaria

Belleza Infinita argitaletxearen argitalpen batean *Bizkaya por su independencia* liburua aipatzeko datak eta datuak ziurtatzea.

Rafael Picavea Leguia

Gerra Zibila eta abertzaletasuna Mutrikun

José Marcos Blazquez eta "Herri askeentzako omenaldia" antzezlanak

Britainiarren inteligentzia II GM (Arthur Patrick Dyer-en paperak)

Sota (familia) eta Eugenio Goyeneche; Miguel Unamuno

Usurbilgo Oroimen historikoa

Fernando Ispizua

Setaresko meatzaritza-konpainia

"La morena" (Getxoko pertsona ezaguna)

Telesforo Monzón

Lehen nazionalismoa Urdaibaiko eskuinaldean (Kortezubi, Gaategiz Arteaga, Ibarrangelu, Ereño, Elantxobe) (Angel Zabalen dokumentazioa)

Arte plastikoak Euskal Herrian 70eko hamarkadan

Basauriko Memoria Historikoa, 1937-1975

Antonio Araluze Ajuria/Plentziako eta Zallako batzokiak

Andoni Ormaetxe

Celedonio Otaño, irudigile Venezuelen

Euskal historiografia (Jose Antonio Agirreren euskal historia)

Emakume Abertzale Batza

Jose Ignacio Lizaso eta Londresko euskal ordezkaria

Alemania naziaren kontzentrazio-eremuetara deportatuko gipuzkoarrak

Sopela, Bigarren Errepublika, gerra...

Euskaldunak Madrilan gerra zibilaren garaian

Ekonomia- eta industria-politika Bizkaia-Euskadin, 1936-1937

Augusto Miangolarra

VI. INFORMAZIOAREN ZABALKUNDEA: WEBGUNEAK – SARE SOZIALAK

- Sabino Arana Fundazioaren webgunean dagoen datu-basea aldian behin eguneratzea, gure dokumentu-funtsen artean biltzen ditugun liburu, aldizkari eta egunkariei buruzko informazioarekin.
- Efemerideak sare sozialetarako (Facebook, Instagram eta Twitter)
- Mezu@buletin elektronikoa bidaltzea, urtero egiten ditugun jardueren berri emateko Erabiltzaileen kopuruari eustea.
- Ekitaldiak *streaming* bidez zuzenean zabaltzea; gure egoitzako Lehendakari Agirre aretoan egiten diren jardueren bideo-grabazioak biltegiratzea (hitzaldiak, mintegiak, liburuen aurkezpenak, etab.) eta ondoren Internetera igotzea, gure webgunetik edo YouTubeko profiletik askatasunez ikusteko.
- Webguneak mantentzea: propioa (Fundazioa), Agirre Lehendakaria, Sabin Etxea eta Sabino Arana Goiri.

8

EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA

8.1. Urteko balantzea

2021eko ekitaldian, Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak Museoaren erakusketa erdi-iraunkorra jarri du abian, "Nor gara gu?" izeneko, bai eta harekin batera joango den zorro didaktiko bat sortu ere. Horrez gain, erakusketan barrena informazio gehiago eskaintzen duten QR kodeak sortu ditu, eta ondoren audio gidetan oinarritutako testuak egin dira.

Museoaren funtsak katalogatzen eta sarrera berriak inbentarioan jasotzen jarraitu dugu, aurten jaso ditugun dohaintza berriak direla eta.

Aurreko urteetan bezala, gure funtsen prebentziozko kontserbazioa egin dugu, zaharberritze batzuk eta pieza nabarmenen gaineko esku-hartze batzuk ere bai, lehengo egoera hobetzeko.

Bestalde, tailer didaktiko berriak antolatu ditugu, gure eskaintza zabaltzearren, Gabonetako tailer berariazkoak landu ditugu eta Museoen Eguna ospatzeko ere tailer berezia antolatu dugu.

Era berean, hainbat adin-tartetako hartzailentzako jarduerak ugaritu ditugu, eta hitzaldiak, dokumentalen proiektzioak eta abar eskaini dizkiegu.

Beste erakunde batzuen hainbat erakusketatan parte hartu dugu, gure funtsen zati bat lagata, eta geuk sorturiko erakusketak han-hemenka antolatzen ibili gara, hitzaldiz hornituz.

Aurten, Arte Ederretako, Gizarte Zientzietako eta Komunikazioko fakultateetako hamar ikasle izan ditugu praktiketan, bai eta EHUko Letren Fakultatekoak ere, Leioako campusekoak zein Gasteizko campusekoak, eta Museoaren eguneroko jardueratik sortutako katalogazio-lanak eta eguneroko lanak egin ditugu.

Aurten, Arte Ederren Fakultateko Agiri Kulturalaren programari atxiki gaitzaizkio. ‘Agiri’ horrek aukera ematen du ikasleek jasotako edo parte hartutako ekimen guztiak (erakusketak, tailerrak, mintegiak, hitzaldiak, deialdiak...) pasaporte moduko batean agertzeko, eta hala, prestakuntza handitzen dieten estimuluek, esperientziak eta ezagutzak barneratzen dituzte. Gainera, harreman zuzena dute lan-munduarekin, hainbat esparrutan. Horrela, urte akademikoa amaitzean, ikasle bakoitzaren curriculum osagarria islatzen duten ziurtagiriak ematen dira, ikasle bakoitzak dagokion graduako edo graduondoko ikasketak egiten dituen bitartean, curriculumetik kanpoko prestakuntza pertsonalizatua eratu ahal izateko.

Unibertsitatearen esparruan, gure jardueren publizitatea EHUko fakultateek ikasleekin eta ikasle ohiekin dituzten kanalen bidez zabaltzea lortu dugu; horrela, gure eskaintza zuzenean iristen zaie balizko interesdunei.

2021ean, gurekin praktikak egin dituzten bi ikaslek gradu-amaierako lana egin dute Museoan gordetako objektuetan esku hartuta.

Sabino Arana Fundazioaren sare sozialen bidez hedatutako informazio irudiz hornitzen jarraitu dugu. Bestetik, Fundazioan egindako ekitaldi guztiak Flickerren kargatu dira, parte-hartzaile edo protagonista bakoitzak irudiak banaka eta modu seguruan eskuratu ahal izan ditzan.

8.2 Katalogazioa

Aurreko urteetan bezala, UPV/EHUko Gizarte Zientzien eta Komunikazioaren eta Arte Ederren fakultateetako hamar ikasle baino gehiago izan dugu gurean. Azkenei dagokienez, Kultura ondasunak kontserbatu eta zaharberritzeko Graduako eta Arte garaikidea kontserbatu eta erakusteko Masterreko ikasleek jardun dute lanean fundazioan. Horiek guztiek 1.700 ordu baino gehiago eman dute funtsotako irudien digitalizazioa eta deskribapen teknikoa egiten, tratamendua gauzatzen eta gure pieza batzuk zaharberritzen.

Ikasle horiek 2.300 ordu baino gehiago eman dituzte digitalizatzen, deskribapen teknikoa egiten, hainbat funtsetako irudiak tratatzen eta gure pieza batzuk zaharberritzen.

Azkenik, behean ageri diren funtsak antolatzen, inbentarioan sartzen eta katalogoan jasotzen jarraitu dugu lanean:

Argazki-funtsa: 2021ean jasotako 2.200 argazki baino gehiago erregistratu, katalogatu eta “Sabino Arana Fundazioa” deritzon moldea txertatu diegu irudiei:

- Norbanakoek egindako dohaintzen funtsetan gordetako argazkiak erregistratzea, katalogatzea, digitalizatzea eta irudiei moldea txertatzea.
- Erregistratutako irudien deskribapen fisikoa egitea eta kontrastea hobetzea.
- Identifikatzaile, egungo egoera, kopien kopuru eta beste ezaugarri batzuk inbentarioan jasotzea.
- Irudiak indexatzea, zeini dagokion testu-fitxaren arabera.
- Tamaina, egungo egoera eta abarren arabera, irudiak euskarri egokietan jartzea, argazki-albumetan gordeta eta hainbat tamainatako zorroetan –pH neutrodunak eta argazkiari egokitutakoak– sartuta.

Arte grafikoak. Kartel eta eranskailuen atala: inbentarioa lantzen jarraitu dugu, Atal honetan, Arte Ederren Fakultateko Kultura ondasunak kontserbatu eta zaharberritzeko Graduoko ikasleek eta Arte garaikidea kontserbatu eta erakusteko Masterreko ikasleek jardun dute lanean, praktikaldian. Guztira, 230 erregistrotik gora jaso dituzte inbentarioan aipatutako ikasleok eta euron kontserbazio-egoera ebaluatu dute.

Masterreko ikasleek museoan gordeta eta apur bat hondatuta zeuden pieza batzuk zaharberritu dituzte, eta ikasleetako batek esku-hartze horietako batean oinarrituta egin du gradu-amaierako lana.

Dekorazio-arteak: 200 objektu baino gehiago berrantolatu eta berriro kokatu ditugu. Arte Ederren Fakultateko praktiketako ikasleek jardun dute zeregin horietan. Gainera, gai berriak erregistratu eta katalogatu dira, eta ale batzuen garbiketa berezia egin dute.

Pinakoteka: museoan aurten jaso ditugun pieza berriak katalogatu eta instalatu dira. Arte Ederretako Fakultateko praktiketako ikasleek egin dute lan hori.

Era berean, Masterreko ikasleek museoan gordetako zenbait pieza zaharberritu dituzte, apur bat narriatuta baitzeuden, garbiketa sakona eginez eta kalterik hartutako margolan-zatiak zaharberrituz, eta 94/0004 margolana zaharberritzeko proposamena egin dute. Aurten bukatu dute zeregin hori, ikasle baten gradu-amaierako lana izan dela.

Ehun-funtsa: aurten, ehuneko materialaren azterketa xehatua egin da, eta, geroago, zenbait piezatan esku hartu da. Gainera, 2021eko ekitaldiaren barruan, gure erakundera heldu diren ale berriak aztertu, inbentarioan jaso eta katalogatu dira.

Prebentziozko kontserbazioa: atal honetan, pH neutroko materialak erabiliz bilgarri espezifikoak sortu dugu pieza batzuentzat.

Gaur egun, 2021ean jasotako dohaintzak dagozkien euskarrietan inbentariatzen eta instalatzen jarraitzen dugu. Ildo horretan, funts desberdinetarako berreskuratutako materialak nabarmendu behar dira: argazkigintza, ehungintza, arte grafikoak, dekorazio-arteak eta abar.

8.3 Zaharberritzeak

2021ean zeregin hauek gauzatu dira:

1) Urtean museora iritsi diren pieza guztiak identifikatzea eta erreserban kokatzea.


- Inbentario orokorrean alta eman ondoren, fitxa teknikoa bete da.

- Pieza guztietan, erregistro-zenbakia identifikatzen duen etiketa jarri da.
- Kontserbazio-egoera aztertu da.
- Museoaren gela edo aretoetan kokatu dira.

2) Lehendik gordetako piezen prebentziozko kontserbazio-lanak.

- Artxibatuta dauden kutxa eta tiraderen barrualdea ikuskatzea, dena behar bezala dagoela egiaztatuz eta piezen jarrera aldatuz.
- Fitxa informatikoaren eta piezen arteko datuen kontrola, .

8.4 “Nor gara gu?” erakusketa erdi-iraunkorra



Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak “Nor gara gu?” erakusketa erdi-iraunkorra inauguratu du 2021ean Sabin Etxean. Eta galdera horri erantzuteko, gure kulturaren, gure hizkuntzaren, mundua ikusteko gure moduaren, gure egungo gizartearen sorreran emakumeek izan duten garrantziaren eta gure ikurren txatalak erakutsi nahi dira, gure sustraian barrenako ibilbide zoragarria ginda. Hori guztia objektu, argazki, dokumentu, argitalpen eta abarren bidez.

Dohaintza-emaileak funtsezkoak dira Sabino Arana Fundazioarentzat, emailerik gabe, ezin izango litzatekeelako erakusketa hau antolatu. Dohaintzak dira gure Museoaren bihotza, eta taupada bakoitza esker oneko erakusgarria da gure izatearen funtsa berreskuratu, zaindu eta zabaltzeagatik lagundu duten pertsona guztientzat.

Gure eginbeharra da emaile guztiek emandakoetatik gure instalazioetan bildutako ondare hori zaintzea, jagoitea eta zabaltzea.

Guztira, hamalau beira-arasa, azalpen-panela eta hirurehun objektu, dokumentu, argazki... baino gehiago. Erakustoki bakoitzean, QR kodea eskaneatzeko erretilua dago. Bertan, bisitariak artikulua deskargatu ahal izango ditu, baita dena delako gunean jorratzen den gaiari buruzko informazio gehiago ere.

Erakusketa bi solairutan banatuta dago eta bi gai jorratzen ditu. Atartearen esparruan, etxearen historia (Sabin Etxearena) azaltzen da eta azken dohaintzei eskainitako gunea dago, berritzen joango dena.

-1 solairuan, erakusketa 5 gunetan banatuta dago, eta honako gai hauek jorratzen dira:

1. GUNEA

- **Aberri Eguna 1932.** Euskal abertzaletasuna aldarrikatzeko ekitaldia, erakusketa ikusgai dagoen lekuari guztiz lotutakoa.
- **EAB.** Euren eskubideen alde borrokan egin zuten eta, gaur egun, emakumeok izan nahi duguna izan gaitezen lortu zuen emakumeen lehen erakundea.

2. GUNEA

- **Euzko Gaztedi/Mendigoizaleak.** Euskara eta gure tradizioak zabaldu eta diktadura frankistaren errepresaliak gorabehera, babesten lagundu zuten gazte-elkarteak.
- **Gerra Zibila.** Euskadiko herritarren bizitzan egundoko eragina izan zuen gertakizuna.
- **Eresoinka.** Kultura baliatuz, Euskaditik kanpo gure nortasuna zabaldu eta aldarrikatzeko sortutako taldea.

3. GUNEA

- **Klandestinitatea.** Errepresioaren aurrean, euskal abertzaleen eguneroko bizitzaren eta borroka demokratikoaren hainbat alderdi erakusten dira.
- **Euskara.** Gure jatorri eta oinarri nagusia. Urteetako ibilbidea, gure hizkuntza ofizialdu eta normalizatu zen arte.

4. GUNEA

- **Gure kulturako pertsona nabarmenak.** Gune hau berrituz joango da, baina beti lotuko zaie gure kultura eta hizkuntza zabaldu eta ezagutarazi duten pertsonari. Gunea pertsona baten bidez aurkeztuko da. Estreinako aldiz, Esteban Urkiaga *Lauaxetari* eskaini zaio: olerkaria, euskararen bultzatzailea, emakumeen aldarrikapenen aldekoa, gudaria eta fusilatuetakoa euskaldunen eskubideak eta askatasuna defendatu nahi izateagatik.
- **Diaspora.** Aberritik kanpo egon arren, gure kultura eta identitatea iraunarazi eta zabaldu duten euskal herritar guztiei eskainitako gunea.
- **Euskadi-Europa.** Beira-arasa honek, nolabait esanda, erakusketa osoa biltzen du eta gaurkotasuna ematen dio: informazio historikoa nahiz gaur egungo dokumentu eta objektuak ikusgai daude bertan.

5. GUNEA

- **Ikurrina.** Gure aberriaren ikur nagusiak historian izan dituen bilakaera eta gorabeherak erakusten dira.

Erakusketa jende guztiarentzat eskuragarri egongo da. Euskal Abertzaletasunaren Museoak herritar guztiei hurbildu nahi die gure erakusketa-proposamen berria. Horregatik, museoaren programa bat etorriko da horrekin, karpeta didaktiko bat izango dugu irakasleentzat, ikasgelan landu ahal izan dezaten. Karpeta horrek ikasturteko hainbat curriculum-etapa beteko ditu, eta hainbat hezkuntza-

Gure jardueretan hainbat adin-tarte hartzen dituzten atalak sortuko ditugu, eta horrela herritar guztiei gai interesgarriak eskainiko dizkiegu.

2021ean, geuk sorturiko aldi baterako erakusketa hauek antolatu ditugu::

- “Berriro inoiz ez. Gerrako irudiak. Juan Beistegi Ugalde, *Loyola batailoiko komandantea*” erakusketa. Munoandi Kultur Elkartea, Azpeitia.
- “Berriro inoiz ez. Gerrako irudiak. Juan Beistegi Ugalde, *Loyola batailoiko komandantea*” erakusketa. Eibarko EAJ PNV.

Gainera, gure funtsak laga ditugu ondoko erakusketetan

- **“Amaiur Memoria Demokratikoa”**, Aranzadi Zientzia Elkarte.
- **“Joseba Rezola heriotzaren 50 urteurrena”**, Ordiziako EAJ PNV alderdiaren Uri Buru Batzarra.
- **“Itzalpeko Emakumeak. Mujeres en la sombra”**, Erkibe Kultur Taldeak antolatuta.
- **“Mural Lemoiz gelditu”**, Bilboko Arte Ederren Museoak antolatuta.

 Gure pieza batzuk lagata, museo eta erakunde hauetako erakusketa iraunkorretan parte hartzen dugu:

- **Gernikako Bakaren Museoa**
- **Euskal Poliziaren Museoa**
- **Museo de l' Exili**
- **Eusko Legebiltzarra**

Azkenik, Gabonetako liburuxka digitala sortu dugu berariaz.

Aurten 60 tailer didaktiko baino gehiago egin ditugu.

ETORKIZUNA ERAIKITZEN. BILBO ERAIKITZEN

CONSTRUYENDO EL FUTURO. CONSTRUYENDO BILBAO

Tailer honek Bilboko iragana eta oraina ezagutzea du helburu, atzoko eta gaurko irudiak baliatuz. Horretarako, antzinako eta egungo argazkiak, koloreztatzeko margoak eta kartoizko oinarri bat erabiltzen ditugu; gero, muntaia egiten dugu hiru dimentsioko efektua lortzeko.

ETORKIZUNA ERAIKITZEN. GABONETAKO ZORION STOP MOTION

CONSTRUYENDO EL FUTURO. FELICITACIÓN NAVIDEÑA STOP MOTION

Tailer honen bidez, Gabonetako txartel bitxia egingo dugu.

Stop Motion teknika landuko dugu. Teknika zinematografiko bat da, pertsonaia/objektu bat animatzean datzana, irudiz irudi, mugimendu txikien argazkiak atera, eta gero denak batuta mugimendu-segida bat sortuta.

Fotogramaz fotogramako animazioa sortuko dugu. Gabonetako objekturik bereizgarrienari, *zuhaitzari*, bizia emango diogu eta apaingarriak sortuko ditugu animazio polit hori edertzeko.

ETORKIZUNA ERAIKITZEN. GABONETAKO ZORION-TXARTELA (PIKA-PIKA)

CONSTRUYENDO EL FUTURO. FELICITACIÓN NAVIDEÑA PIKA PIKA

Tailer honen helburua Eguberria zoriontzeko txartela sortzea da, Pika Pika animazio-teknika erabiliz.

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA: KOLORE HIPERKONEKTATUAK

ARTE, CIENCIA, TECNOLOGÍA, INNOVACIÓN: COLORES HIPERCONECTADOS

Tailer honen bitartez, kolorearen izaera abstraktu eta esperimentalena lantzen dugu.

MENDE BERRIKO ESKOLA. KULTURARTEKOTASUNA: TAUMATROPOAK

LA ESCUELA DEL NUEVO SIGLO. MULTICULTURALIDAD: TAUMATROPOS

Tailer honen helburua da umeei zinemaren oinarritzko hastapenak erakustea, jolas-ildoko jarduera sortzaile bat erabiliz. Izan ere, jostailu optiko horrek mugimenduan dagoen irudia lantzen du..



MENDE BERRIKO ESKOLA. KULTURARTEKOTASUNA.
GURE IKURRAK: LAUBURUA ETA SERIGRAFIA TAILERRA
 LA ESCUELA DEL NUEVO SIGLO. MULTICULTURALIDAD
 NUESTROS SIMBOLOS: LAUBURU Y TALLER DE SERIGRAFIA

Tailer honen bidez, ikasleek serigrafiaren teknika artistikoa ikasiko dute, etxean erraz eta ekipamendu handirik erabili beharrik gabe praktikan jar daitekeen artea.

HISTORIA. EZAGUTU ERALDATZEKO: ARBOGLIFOAK
 HISTORIA. CONOCER PARA TRANSFORMAR: ARBOGLIFOS

Tailer honen bidez, euskal artzainek munduko bazter askotara egindako migrazioaz jarduten dugu, batez ere, Amerikara egindako migrazioaz, eta arboglifyoak zer diren azaltzen diegu.

HISTORIA. EZAGUTU ERALDATZEKO: GABONETAKO ARBOGLIFOAK
 HISTORIA. CONOCER PARA TRANSFORMAR: ARBOGLIFOS NAVIDEÑOS

Tailer honen bidez, euskal artzainek munduko bazter askotara egindako migrazioaz jarduten dugu, batez ere, Amerikara egindako migrazioaz, eta arboglifyoak zer diren azaltzen diegu. Geroago, zuhaitz baten adar-zatiak (zurezko diskoak) emanda, Gabonetako apaingarri ederra lantzen dugu.

HISTORIA. EZAGUTU ERALDATZEKO: BILBOKO LAUZA
 HISTORIA. CONOCER PARA TRANSFORMAR: LA BALDOSA DE BILBAO

Bilboko ikur ezagun eta maitagarrienetako bat LAUZA ospetsua da. Tailer honen bidez, umeek pixka bat gehiago ezagutuko dute lauzairen historia, haren diseinuaren zergatia, noiztik dagoen hiribildua... eta beste gauza asko!

HISTORIA. EZAGUTU ERALDATZEKO: “GUERNICA” PABLO PICASSO

HISTORIA. CONOCER PARA TRANSFORMAR: “GUERNICA” PABLO PICASSO

Tailer honen bidez, euskal historia landuko dugu, eta hurbilagotik ezagutuko dugu gure historiarekin harreman estuena duen nazioarteko artista ospetsuenetako bat, Pablo Picasso eta bere “Guernica”.

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA: TXIMISTARGAZKIA

ARTE, CIENCIA, TECNOLOGÍA, INNOVACIÓN: RAYOGRAMA

Tailer honen bidez, argazkigintza lantzen dugu oso ohikoa ez den ikuspegi batetik, argazkiak egiteko teknika guztiz desberdina baita; izan ere, irudiak lortzen dira argazki-kamerarik gabe.

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA: GABONETAKO APAINGARRIAK (HAMA BEADS)

ARTE, CIENCIA, TECNOLOGÍA, INNOVACIÓN: ADORNOS NAVIDEÑOS HAMA BEADS

Tailer honetan Gabonetako apaingarriak egingo ditugu irudiak sortuz Hama Beads direlakoak erabiliz. Plastikozko pieza txikiak dira horiek, kolore ezberdinetakoak, eta hainbat irudi osatu ahal izango dituzte forma eta tamaina emanaz, baita hiru dimentsioko objektuak ere.

IDAZTEA ETA AMETS EGITEA NURREN AMAMAREKIN

ESCRIBIR SOÑAR CON LA AMAMA DE NUR

Toti Martínez de Lezea idazlearekin elkarlanean, eta NUR saileko liburuak oinarritzat hartuta, lehen hezkuntzako neska-mutilen irakurzaletasuna sustatzea da tailer honen helburua, benetako istorioen bidez. Nur Totiren biloba da eta Txinan bizi da.

8.7 HITZALDIAK / DOKUMENTALAK

“MUSEOKO MATERIALEN BIZITZA” HITZALDI-ZIKLOA

“PREBENTZIOZKO KONTSERBAZIOA”

2012. urteaz geroztik, Euskal Abertzaletasunaren Museoak museoeko praktikak eskaintzen dizkie UPV/EHUko fakultate guztietako ikasleei, Fundazioak jorratzen dituen arlo guztietan.

2019an, elkarlanean hasi ginen Leioako Campuseko Arte Ederretako Unibertsitateko Kontserbazio eta Zaharberritze Graduko eta Arte Garaikidearen Kontserbazio eta Erakusketa Masterreko irakasleekin, eta ordutik hona ikasle askok egin dituzte prebentziozko kontserbazio-praktika berariazkoak gure instalazioetan.

Eta, hain zuzen ere, lankidetzaz horretatik sortu da hitzaldi eta esperientzien ziklo hau, **“Museoko materialen bizitza”** izenburua daroana eta 2020an hasi dena. Ziklo horren helburua da hainbat jakintza-arlotako espezialisten ezagutza eta gure museoan praktikak egin dituzten ikasleen bizipenak lotzea. Aurten ere gauzatu dugu ekimena Leioako campuseko Arte Ederren Fakultatearen laguntzaz, fakultateak garatzen duen “Agiri Kulturala” programan pare hartu dugula.

Ziklo honen helburua hainbat jakintza-arlotako adituen jakintza gure Museoan praktikak egin dituzten ikasleen bizipenekin lotzea da.

Aurten, Begoña Aristegi Arte Ederretako lizentziadun eta prebentziozko kontserbazioaren arloko adituaren eskutik eman ditugu hitzaldiak.

“MUSEOKO MATERIALEN BIZITZA” HITZALDI-ZIKLOA (EHUNAREN KONTSERBAZIOA)

Soledad Santistebanek, Geografia eta Historiako lizentziadunak eta ehungintzan espezializatutako prebentziozko kontserbazioan adituak, bigarren urtez eman du ziklo honi atxikitako hitzaldia. Bertan, ehunez egindako materialetan aurki ditzakegun arazo nagusiak azaldu zituen, batez ere, materialen tipologia dela eta, askotan endekatzeko joera handia duten zuntz naturalak baitira, besteak beste, ingurumen- edo manipulazio-faktoreengatik.

Horretarako, Sabino Arana Fundazioaren Abertzaletasunaren Museoaren ehun-funtsarekin urteetan egindako lana hartu zuen oinarritzat. Funts horrek mota askotako mila pieza baino gehiago ditu. Santistebanek kontserbazioaren eta instalazioaren arazoak azaldu eta aztertu zituen, egun eskura ditugun baliabideetan funtsaturik

Hitzaldi hori Leioako campuseko Arte Ederren Fakultateko Agiri Kulturalaren programari atxikita dago.

Aurten atal berri batzuk jorratu ditugu hitzaldiei dagokienez.

“GAZTE EKINTZAILEAK. ARTEA GURE INGURUNERA HURBILTZEN” ZIKLOA

Naiara Gallegok eta Laura Díezek nork bere esperientzia azaldu zuen, batez ere, euren burua nola berrasmatu behar izan duten, aurrera atera eta egungo merkatuan espazio berriak urratu ahal izateko.

Naiara Gallego argazkilari eta Meraki Estudioaren sortzaileak Meraki for brands izeneko argazkigintza korporatiboko lerro berria kaleratu berri du, Meraki Estudiok lantzen duen argazkilaritza naturala enpresei eskaintzeko. Era berean, argazkilaritza mugikorrari buruzko ikastaroak ematen ditu, besteak beste, Retail Cecobi euskal eskolan.

Laura Díez, berriz, Artotekako koordinatzaileetako bat da, Bizkaian bakarrik funtzionatzen duen ekimen aitzindaria. Sarean, Karraskan eta Wikitoki kolektiboek bultzatutako plataforma da Artoteka, liburutegi baten antzera funtzionatzen duena, baina liburuen ordeztu, etxera eramaten duzuna arte garaikideko obra bat da. Mailegu-aldia amaituta, itzuli eta beste baten truke aldatzen duzu. Erraz-erraza.



Beste gazte batzuk beren proiektu propioak abian jartzera gogatu ditzaketen esperientziak, azken batean.

Esperientzia berriez hornitzen garatzen jarraituko dugun ziklo bati eman diogu hasiera bi sortzaile hauen eskutik.

“KHARTOUM OFFSIDE” DOKUMENTALA

Sabino Arana Fundazioa Euskal Abertzaletasunaren Museoa, ekainaren 2an, Emakumeek egindako 10. zinema-jaialdiaren esparruan, «Khartoum offside» dokumentala eman zen.

Garazi Murua, Ainhoa Moraza eta Yulema Corres Athletic Clubeko jokalaria emanaldian izan ziren.

Aurtengo maiatzaren 31tik ekainaren 4ra bitartean, Bilbon ikusi ziren bederatzi filmetako bat da (bost film luze eta lau labur), Klaketa Arabiar ekoiztetxeak antolatzen duen eta Euskadin KCD euskal GKEaren laguntza duen Emakumeek egindako 10. zinema-jaialdiaren barruan.

Dokumentalaren emanaldiaren ondoren, bertaratutakoek Amal Ramsis zuzendari egiptoarrarekin hitz egiteko eta iritziak trukatzeko aukera izan zuten.

Saudi Arabiako Marwa Zein zuzendari Jartumeko (Sudan) emakume gazte talde baten istorioa kontatzen du, herrialdeko gobernu militar islamikoak ezarritako debekua gorabehera, futbol profesionalean jokatzeko erabakia hartu duten emakume gazteen istorioa. Sudango emakumezkoen talde nazional gisa aitortu ditzaten, emakumeek beldurrari muzin egin beharko diote, eta adorea eta irmotasun izugarria erakutsi.

AMIAB DOKUMENTALA, ALEX TXIKONEN ESKUTIK: “GAILURRA BIDEA DA”

Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak “La cumbre es el camino” dokumentala aurkeztu zuen Euskadin. Bertan, adimen-urritasuna duten hiru mutilek Everesteko kanpamentu nagusira egindako lehen espedizioa kontatzen da, 5.600 metroko garaieran. Lehen trekking inklusiboa da planetako mendilerro garaianera, Himalaiara.

Abentura honetako hiru protagonistak Juan Alejandro Martínez, Jesús Bermúdez, eta José Urbano Aparicio dira. Hiru gazteak Alex Txikon euskal alpinista ezagunarekin joan ziren Everestera, neguan igotzeko asmoz egindako lehen etapan, oxigenorik gabe.

Bidea adimen-urritasuna duten 20 urteko hiru mutilen abentura da, amets bat betetzeko borrokan: hesiak hautsi eta euren hiritik, Albacetetik, Nepalera bidaiatu Lukla hiritik Ama Dablam mendiaren oinetaraino. Hamabi egun oinez, 100 kilometroko ibilbidea desnibel handiarekin, zero azpitiko 20 graduako tenperatura, 5.500 metrotik gora... Mutilek Kirol Merezimenduaren Domina jaso dute balentria horretan parte hartzeagatik.

Espedizio horretan, Ramón Portilla eta Oscar Cardo alpinistek ere parte hartu zuten. AMIABek proiektu honetan duen lankidetzaren helburu nagusia desgaitasuna duten pertsonen esperientzia paregabe baten bidez ikusgarritasuna ematea da, horrela, zeinahi erronka, nahiz eta zaila izan, lor daitekeela erakutsi.

8.8 Norbanakoen dohaintzak / kontsultak

2021eko ekitaldian, 900 pieza eta irudi baino gehiago (horietako asko argitaratu gabekoak) jaso dira Euskal Abertzaletasunaren Museoan, gehienak arte grafikoen (eranskailuak) eta dekorazio-arteen sailean gordetzekoak, berrogeita hamar bat norbanakok eta erakundek egindako dohaintzei esker.

2020ko ekitaldian, Euskal Abertzaletasunaren Museoak norbanakoei, erakundeek, ekoiztetxeek, udalek, argitaletxeek, telebistako programek, fundazioek, Eusko Jaurlaritzak edo beste museo batzuek egindako 220 kontsultari baino gehiagori erantzun die.

Argazki-funtsetik 380 irudi baino gehiago erabili dira, Facebook eta Instagram sare sozialetan eta DEIA egunkarian hedatzen den *Historias vascas* sailean argitaratzeko.

8.9. Webgunea/sare sozialak/flickr

2021eko ekitaldian, Instagram eta Facebook sare sozialetan argitaratzeko irudiak ematen jarraitu dugu, eta Sabino Arana Fundazioak Flickr plataforman egindako ekitaldiei buruzko informazioa zabaldu dugu, parte-hartzaileek eta, oro har, herritarrek, informazio hori guztia eskura izan dezaten.

Aurten, Sabino Arana Fundazioaren webgune berria garatzen ari gara. Bertan, museoak atal propioa izango du eta museoaren erakusketak ez ezik, aldi baterako erakusketak, tailerrak eta hitzaldiak ere zabalduko ditugu. Gainera, museoaren funtsak apurka-apurka kargatuko ditugu, on line kontsultatu ahal izateko.

9

SABINO ARANA SARIEN EKITALDIA



2020koak zenbatuta, 180 pertsonak, elkartek eta erakundek jaso dute saria 32 edizio hauetan. Gizarteari zerbitzua emateko gaitasunagatik eta harekiko atxikimenduagatik nabarmentzen diren pertsonak, erakundeak eta kolektiboak ditugu horiek guztiak eta, aurten, ondokoak batu dira zerrendara: Remei Sipi idazle eta emakume afrikarren aldeko ekintzailea; José Barreira Euskadin bizi den industrialari galiziarra; Amaia Gorostiza enpresaburu eta Eibar Kirol Elkartearen presidentea; Juan Antonio Urbeltz antropologo eta folklorista; eta Bilboko Mediku Zientzien Akademia.

COVID-19aren izurriteak eragindako osasun-krisiak baldintzaturik, Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakaria buru izan duen aurtengo ekitaldia lekuz aldatu behar izan da. Arriaga antzokitik Sabino Arana Fundazioaren egoitzara. Hain zuzen ere, egoera hori dela eta, Sabino Arana Fundazioaren presidente Mireia Zarate andreak sarrera-hitzaldian esandako lehen hitzak elkartasun-, hurbiltasun- eta, batez ere, itxaropen-mezua zabaltzeko izan dira, Euskadin, Europan, mundu osoan, pairatzen ari garen pandemia honen ondorio latzenak pairatu dituzten eta pairatzen ari diren pertsona guztientzat.

Remei Sipi: ADOREA

Hasierako hitzen ostean, Mireia Zaratek lehen sariduna jaso du, Remei Sipi, Afrikako emakumeen aldeko ekintzaile eta borrokalari nekazina.

Remei Sipik saria partekatu nahi izan du Afrikako emakume guztiekin, bereziki, “euren eguneroko ahaleginen bidez, gure gizartearen etorkizuna handitzeko aukera ematen duten migratzaileekin; eta, oro har, gurekin ibili diren eta ibiltzen diren emakume guztiekin, gure errealitateak ikusarazten eta, guztien artean, gizartearen ikuspegitik bidezkoagoak eta berdinkideagoak diren jendarteak erdiesten laguntzen, gizarte horiek guztiak gure ekarpenei esker aberastu direla kontuan hartuta”

Halaber, bihotzez oroitu nahi izan ditu bidelagun izan dituzten baina dagoeneko ez dauden

emakume guztiak, “oraindik ere hurbil-hurbil daudelako”. “Guztion ekarpenak batuta lortuko dugulako gizarte zuzenagoak eta solidarioagoak eraikitzea”, adierazi du hitzaldiaren amaieran.

José Barreira: LIDERGOA

Jarraian, Zaratek Jose Barreira hartu du, izatezko ekintzailea, Galiziako Atrave herrixkatik etorritakoa eta duela 40 urtetik Euskadin bizi dena. Besteak beste, garraioa, siderurgia, hodiak, logistika, energia berriztargariak eta ostalaritza sektoreei lotutako enpresa-ekimenak gidatu ditu bere ibilbide luzean.

Hastapenetan, Matienan (Bizkaia) aritu zen, taberna txiki batean, handik logistikaren mundura jauzi egin zuen eta berriro ere ostalaritza jorratu zuen; Barreirak adierazi du berehala igarri zuela “Euskadiko jendeak ekintzailetzaren, lanaren eta sakrifizioaren kemena daramala bere DNAn txertaturik”.

Eskarmentu luze-luzean oinarrituta, Jose Barreiraren ustez, “arrakasta ez da zerutik erortzen; arrakasta ahaleginaren, lanaren eta, askotan, familiari orduak kentzearen emaitza da, bai, halaber, zeregin eta negozioak partekatu ditudan hainbat eta hainbat pertsonen konfiantza eskuratzearen emaitza”.

“Erlojua daramat eskumuturrean jantzita beti, hitzorduetara garaiz iristeko, baina inoiz ez diot orduari begiratzen lanari uzteko. Eta horrek guztiak merezi izan du nire familiagatik, nire aitagatik (Goian bego), nire ama Avelinagatik, oraindik ere Atraven bizi dela, 97 urterekin. Sari bat emango zidatela azaldu nion, eta haxe erantzun zidan: izugarri gustatzen zait euskaldunek zu maitatzea”.

Amaia Gorostiza: AURRENDARITZA

Amaia Gorostiza enpresaburuak eta Eibar Kirol Elkartearen presidenteak ere saria jaso du gaur, “Enpresaren arloan gisa nahiz futbolaren munduan darabilen kudeaketa-eredu bikainagatik, argiro erakutsi baitugu berdintasuna lorgarria dela horren maskulinizatuta dauden kirol- eta enpresa-esparruetan”.

Gurasoei, senarrari eta eguneroko bidean lagun dituen pertsona guztiei eskerrak emanez, Gorostizak saria “kide izan naizen eta orain banaizen kolektibo guztietan ezartzen saiatu naizen balioen eta giza harremanen inguruko aintzatespena” dela adierazi du.

Amaia Gorostizaren ustez, arrakastaren gakoa “pertsona zintzoez eta profesional bikainez inguratuta egotea da, eta gako hori “enpresan, futbolean eta bizitzan bertan” aplika daiteke.

“Bolada honetan bizitzen ari garen aro ezezagun, zail eta zalantzazkoa” ere aipatu du eibartarrak. Zentzu horretan, “hobekuntzari, irmotasunari, ilusioari eta beldur apur bati eragin behar diegu orain”, adierazi du, “beldurrik gabe ez baitago ausardiarik”.

Amaia Gorostizaren ustez, “elkartasuna, enpatia eta erabakitasuna dira une honetan behar ditugun osagaietako batzuk, COVIDaren eraginez pairatzen ari garen egoerari ausardiaz aurre egiteko”.

Juan Antonio Urbeltz: SUSTRAIAK

Juan Antonio Urbeltz antropologo eta folkloristak Marian Arregi emaztearekin partekatu nahi izan du saria. 2018ko martxoan hil zen, eta bizitza osoan Juan Antonioren nahitaezko euskarria izan zen dantza tradizionalak aztertu eta gizartera zabaltzeko. “Gure dantza tradizioaletan sakontzeko interesa piztu zidan patua, emaztearekin maitemintzera eramanez ninduen bera, Carl Gustav Jung psikoaanalista suitzarrak sinkronizitatea deiturikoa da. Sinkronizitatea gertatzen da arrazoi jakin bat pentsaezina denean bakarrik. Dantzarekin –eta, beraz, emaztearekin– dudanean harremanak hasiera

berezia izan zuen” zehaztu du.

Horrela, Urbeltzek bere eta Marianen jatorria gogoratu du, XIX. mendeko beste folklorista handi baten jatorriari lotuta, hots, Juan Ignacio Iztuetaren eta haren emazte Maria Joaquina Lintzoainen jatorriari lotuta. Dantzen ezagutza trebatzen hasi zenean aurkitu zuen Iztuetaren irudia Urbeltzek, eta 2018an «Juan Ignacio de Iztueta y yo. Sincronicidad, Predestinación y Vínculos Acausales. Breve lectura crítica del ‘Gipuzkoako Dantzak’».

Sabino Arana Fundazioak Juan Antonio Urbeltzek eta Marian Arregik diktadura garaitik hona egindako ikerketa-lan emankorra aitortu du. Folklorearen berreskuratzeko lan hori beharrezkoa da, berpiztu eta etorkizuneko belaunaldiari transmititu ahal izateko.

Bilboko Mediku Zientzien Akademia: KONPROMISOA

Eta, azkenik, Bilboko Mediku Zientzien Akademiari (2020an, 125 urte bete ditu) aitortu dio Sabino Arana Fundazioak gure osasun-profesionalen gaikuntza hobetzeko eta erakundeei aholkuak emateko egindako ahalegin apartak, azken finean, hasieran esan duguna lortzeko xedez: herritar guztiek osasun-eskubidea baliatzeko modua ematea.

Ricardo Franco presidenteak jaso du saria, Juan Ignacio Goiria eta Juan Jose Zarranz Akademiako presidente ohiekin batera.

Egungo pandemia dela eta, Ricardo Francok azpimarratu du duela hamabi hilabete baino zerbait gehiago Txinan gertatzen ari zenaren berri izan genuenetik, “osasun-sistemak aurre egin behar izan diola azken hamarkadetakoa osasun-erronkarik handienari, eta horri esker ikaspen baliotsuak eta mingarriak izan ditugu gure osasun-sistema hobetzeko eta etorkizunean etor daitezkeen agerraldien aurrean modu eraginkorragoan erantzuteko”.

Era berean, “izurriteari aurre egiteko Euskadiko osasun-arloko profesionalek egin duten eta egiten ari diren lan eskerga” aldarrikatu du. “Bihoakiela aitorpena “horiei guztiei, gaur bertaratutakoei eta, zoritxarrez, eriondo daudenei eta dagoeneko ez daudenei”.

Azkenik, Bilboko Mediku Zientzien Akademiaren lana goraipatu du, “antolakunde zientifiko eta antzeko helburuak dituzten osasun-arloko elkarrekin harreman-lotura den aldetik”.

Jagoba Astiazaranek (txistua) eta Iñar Sastrek (pianoa) osatzen duten ARINEKETAN bikoteak bi piezaz alaitu du sari-banaketa: “Agurraz jolasean” eta “Uzturre” eta “Belauntxingoa” dantzen arteko nahastea. Bikoteak euskal doinu eta erritmo tradizionalak jotzen ditu emanaldietan, berezko sorkuntzak gehituta. Gaurko ekitaldian, gainera, Jagoba Astiazaranek Juan Ignacio Iztuetaren kopia bat kantatu du, duela 200 urte sortutakoa, Urbeltz lako maisuek gure folklorea berreskuratzeko egin duten eta egiten jarraitzen duten lanarekin ezin hobeto ezkontzen dena.

Aiert Arieta-Araunabeña kazetariak aurkeztu zuen ekitaldia.

10

BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK

2021ean Aranzadi Zientzia Elkartearekin elkarlanean jarraitu dugu memoria berreskuratzeko lanetan, gorpuzkiak hobitik aterata, Aranzadi Elkartearen bera gerra zibilean desagertutakoak, fusilatutakoak eta hobi komunetan lurperatutakoak aurkitu, lurpetik atera eta identifikatzeko egiten ari den ikerketa-lanen berri emanez.

Martxoan, Irmandade de Centros gallegos de Euskadi-rekin lankidetzan, Alfonso R. Castelao idazle, marrazkilaria eta nazionalismo galiziarraren sortzaileari omenaldia egin zitzaion. Ekitaldia lore eskaintza izan zen, politikari galziarrari eskainitako monumentuan, Europa parkean, Bilboko Txurdinaga auzoan.

Gernikako bonbardaketaren biktimen omenez apirilaren 26an egin zen lore-eskaintza ere parte hartu genuen, hainbat erakunderekin, herrialdeko agintarirekin eta Gerra Zibiletik bizirik atera zirenekin batera.

Ekainean, 1936ko Aterpe monumentuaren XIV. urteurrenean parte hartu genuen.

Hainbat ikastetxerekin lankidetzan, hezkuntza-tailerrak eta erakusketak bultzatu dira, haurrek eta gazteek historia eta beren ingurunea hobeto ezagutu ahal izan ditzaten.

Telesforo Monzon ELab-Euskal Herrigintza Laborategiarekin hainbat topaketa izan ditugu.

Beste topaketa batzuk.

11 KOMUNIKAZIOA / INFORMATIKA

- Mezu@: harpidedun berriak erakartzea argitalpena sendotzeko.
- Euskadiko historiari lotutako politika, kultura, kirol, gizarte eta beste arlo batzuetako gertakizunen urtemugak eta Sabino Arana Fundazioaren jarduerak zabaltzea hainbat sare sozialetan (Facebook, Twitter eta Instagram).
- Mezu@ berripaper elektronikoa bidaltzea harpidedunei urtero antolatzen ditugun jardueren berri emateko. Erabiltzaileen kopuruari eustea.
- Jarduerak zuzenean eskaintzea, streaming bidez; bestetik, bideoak gordetzea gure webgunetik ikusi ahal izateko.
- Sabino Arana Fundazioaren webgunean ostatatuta dagoen datutegia aldizka eguneratzea, gure agiri-funtsetara batzen ditugun liburu, aldizkari, egunkari eta euskal historiari buruz argitaratu diren artikuluei buruzko argibidez hornituta.
- Webguneak eguneratzea: Fundazioarena, Agirre lehendakaria, Sabin Etxea eta SAG150 (Sabino Arana).
- Artikuluak idaztea DEIA egunkariarentzat, euskal historiari eta antropologiari lotutako askotariko gaien inguruan.
- Historia ikertu eta zabaltzeko lan eta argitalpenetan parte-hartzea.
- Mahai-inguruetan, liburuen aurkezpenetan, jardunaldietan, hitzaldietan, hedabideetako saioetan eta abarretan parte-hartzea.

12 JARDUEREN ONURADUNAK. LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA

- Hainbat jakintza- zientzia-arlotako adituak.
- Agintariak eta politika-, ekonomia- eta gizarte-esparruetako ordezkariak: politikariak, katedradunak, legelariak...
- Iritzi-sortzaileak eta hedabideak.
- Irakasleak, ikertzaileak, unibertsitateko profesionalak.

- Umeak, familiak, praktikaldiko ikasleak eta bekadunak, erretiratuak.

Gure deialdien izaera irekia dela eta, euskal gizarte osoa dugu gure jardueren onuradun. Ildo horretan, gure zabalkunde-plana Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan eta Euskal Herriko gainerako herrialdeetan hedatzen da.

Lortutako emaitzen ebaluazioa

Hasieran adierazi dugun bezala, *Nor gara gu?* erakusketa erdi-iraunkorraren antolaketa eta abian jartzea eta gogoeta eta eztabaida mintzaguneari lotutako jarduerak izan dira Sabino Arana Fundazioaren 2021eko agendaren ardatzak. Mintzaguneari gagozkiola, Euzko Mendigoxale Batzaren mendeurrena, ikurrinaren jasoeraren mendeurrena Buenos Aireseko Laurak Bat Euskal Etxean (Argentina), Joseba Rezolaren heriotzaren 50. urteurrena, Alejandro Elizalde nafar erresistentearen heriotzaren 75. urteurrena, PDE-EDP, Euskaltzaindia, Zuzenbideko Euskal Akademia, Helduak eta abarrekin egindako jardunaldiak izan dira horietako batzuk.

Bide horretan guztian, Sabino Arana Fundazioak gizarte-oinarri oso anitza du, bai maila sozialean, bai politikoan.

Era berean, ahalik eta gehien saiatzen gara emakumeen parte-hartzea bultzatzen eta genero-berdintasuna sustatzen. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak dioenari jarraiki, Fundazioak, bere jardueretan, berdintasunaren printzipioa gauzatzeko beharrezko neurriak sustatzen ditu, eta printzipio horren oinarri diren balioak eta praktikak sustatzen ditu. Horrela, bai barruko erabaki-organoetan – Patronatuan, etab. – Bai gure gonbidatuen eta parte-hartzaileen artean abiaburu hori betetzen saiatzen gara.

Aipatzekoa da, halaber, Sabino Arana Fundazioan euskararen erabileraren garapena eta normalizazioa bermatzeko neurriak hartu ohi ditugula, euskararen dimentsio bikoitza gure herriaren kultura-ondarearen funtsezko zatitzat hartuta.

Atera diren kopuru eta datuak ikusita, begiz jotako aurreikuspenak behar bezala bete ditugula uste dugu.

13 HIZKUNTZA- ETA GENERO-POLITIKEN ADIERAZPENA

Bide horretan guztian, Sabino Arana Fundazioak gizarte-oinarri oso anitza du, bai maila sozialean, bai politikoan.

Esan beharra dago Sabino Arana Fundazioaren helburu nagusietako bat emakumeen parte-hartzea bultzatzea eta genero-berdintasuna sustatzea dela fundazioak antolatzen dituen jarduera guztietan. Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Legeari jarraiki, jarduerak garatzen dituenean, fundazioak beharrezko neurriak ahalbidetzen ditu berdintasun-printzipioa eraginkortasunez betetzeko eta printzipio hori funtsetan duten balioak eta jardunbideak sustatzen ditu.

Aipatzekoa da, halaber, Sabino Arana Fundazioan euskararen erabileraren garapena eta normalizazioa bermatzeko neurriak hartzen ditugula, euskararen dimentsio bikoitza gure herriaren kultura-ondarearen funtsezko zatitzat hartuta.

Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren arabera, "Ezagutzaren arloan oraindik urrats sendoak eman behar badira ere, ezagutzaren eta

erabileraren arteko aldea murrizteko bidean, plan honen helburu nagusia euskararen erabilera sustatzea izango da".

Ondorioz, proiektu hau bat dator ESEPe jasotzen duen helburu nagusiarekin, bai eta helburua lortzeko proposatzen dituen zeharkako ildoekin ere, hau da, "Euskararen aldeko motibazioa eta sustapena lantzea ez da zentzu hertsian hartu behar, zentzu zabalean baizik. Hizkuntza ikasteko motibazioan eragitea funtsezkoa da, noski, baina, horrekin batera, ezinbestekoa da euskara erabiltzeko argudioak eskaintzea, hizkuntzen erabileran gertatzen diren egoerak kudeatzeko estrategia bat eskaintzea, hizkuntzen kudeaketan garatzen diren eredu onak zabaltzea, soziolinguistikari buruzko oinarrizko azalpenak gizarteratzea, ezagutzatik hizkuntzaren erabilerarako jauzia egiten lagunduko duten jarduerak antolatzea, hizkuntzaren normalizazioaren arloan lidergoa izatea, eta abar"

.

Urtarrilak 15:	Sabino Arana Sarien XXXII. edizioaren aurkezpena.
Urtarrilak 31:	Sabino Arana Sariak. XXXII. edizioa. Sabino Arana Fundazioan.
Otsailak 19:	<i>Itzalpeko emakumeak-Mujeres en la sombra</i> erakusketaren inaugurazioa Tolosako Aranburu jauregian. Erkibe elkarteak antolatu zuen, Tolosako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin. Sabino Arana Fundazioak 50 irudi eta 30 objektu baino gehiago laga zituen.
Martxoak 3 eta 4:	Mintegia Telesforo Monzon Elab-Euskal Herrigintza Laborategiaren lankidetzarekin: «Basque Country-USA: Evolution and Future Relationship».
Martxoak 17:	Hitzaldia: <i>Euzko Mendogoxale Batza, ehun urteko mendizaletasuna eta aberrigintza</i> . Hizlaria: Iñaki García Uribe, euskal mendizaletasunaren ikertzailea eta Aranzadiko kidea.
Apirilak 15:	Hitzaldia ZOOM bidez Londresko Euskal Etxearekin, Iñaki Goiogana historialariaren eskutik. <i>Euzkadiko Jaurlaritzaren Londresko ordezkartza (1937-1945)</i> .
Apirilak 27:	Hitzaldia: <i>Venezuelako ekonomia. Hondamenditik susperraldira</i> . Hizlaria: José Manuel Puente, ekonomialaria eta IESAko irakaslea.
Apirilak 29:	<i>Atzoko eta gaurko faxismoen aurka</i> hitzaldi zikloa. Hizlaria: Patxi Agirre. Hitzaldia: <i>Kristau Demokrazia eta Manuel Irujo (1919-1940)</i> .
Maiatzak 5:	Mahai-ingurua: <i>Feminismo eta politika. Nola txertatu genero-ikuspegia politikan?</i> Parte-hartzaileak: Itxaso Atutxa, Idoia Mendia, Izaskun Duque, Miren Gorrotxategi eta Laura Garrido.
Maiatzak 6:	<i>Atzoko eta gaurko faxismoen aurka</i> hitzaldi zikloa. Hizlaria: Aitor Esteban, Kongresuko diputatua. Hitzaldia: <i>Faxismoaren sarrera/normalizazioa Parlamentuan</i> .
Maiatzak 6:	<i>Hermes</i> aldizkariaren 68. zenbakiaren argitalpena.
Maiatzak 13:	<i>Atzoko eta gaurko faxismoen aurka</i> hitzaldi zikloa. Hizlaria: Iñaki Anasagasti, Joseba Rezolaren kolaboratzailea Euzkadi Irratian. Hitzaldia: <i>Joseba Rezolaren heriotzaren 50. urteurrena</i> .
Maiatzak 19:	Hitzaldia: Museoen Nazioarteko Eguna.
Maiatzak 20:	<i>Atzoko eta gaurko faxismoen aurka</i> hitzaldi zikloa. Hizlaria: Iker Merdodio, kazetaria eta on-line marketineko aholkularia. Hitzaldia: <i>Fake-news eta politika. Ez ahaldundu edonor</i> .
Ekainak 2:	Zine-Foruma, <i>Khartoum offside</i> , Amal Ramsis egiptoar cinema-zuzendariaren eskutik.
Ekainak 10:	Hitzaldia/aurkezpena, Aitor Pescador Medranoren eskutik: <i>Francisco Lorda Yoldi, Iruñeko bizilagun eta zinegotzia (1877-1939)</i> , Bilbon.

Ekainak 15:	Mintegia: <i>Demokraziaren eta ongizate-estatuaren etorkizuna pandemiaren ondoren</i> , EDPrekin lankidetzan.
Ekainak 17:	Hitzaldia/aurkezpena, Aitor Pescador Medranoren eskutik: <i>Francisco Lorda Yoldi, Iruñeko bizilagun eta zinegotzia (1877-1939)</i> , Iruñean.
Ekainak 19:	Gudariei, milizianoei eta Gerra Zibileko emakumeei omenaldia ‘Aterpe 1936’ eskulturaren aurrean, Artxandan.
Uztailak 2:	2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako Helburuei buruzko mintegia (koordinatzailea: Xabier Barandiaran).
Uztailak 9:	Ikurrinaren jasoteraren mendeurrena Buenos Aireseko Laurak Bat Euskal Etxean.
Uztailak 15:	<i>Hizkuntza biziberritzeko bide eta erronka berriak, Euskararen Legearen arrastotik.</i>
Uztailak 29:	<i>Hermes-en</i> 69. zenbakiaren aurkezpena.
Abuztuak 7:	<i>Amaiur memoria demokratikoa</i> erakusketaren inaugurazioa Elizondon.
Irailak 10:	<i>Itzalpeko emakumeak-Mujeres en la sombra</i> erakusketaren inaugurazioa Laudion.
Irailak 19:	Omenaldia 1936ko irailaren 25ean Zirardamendi-Aiastia (San Migel)-Elgoibarko frontean hil ziren hamalau gudari eta milizianoei, euskal lurretan frankismoaren aurrerapena geldiarazi nahian. Gogora Institutuarekin eta Elgoibarko Udalarekin lankidetzan.
Irailak 28:	Mintegia Telesforo Monzon Elab-Euskal Herrigintza Laborategiaren lankidetzarekin.
Irailak 30:	Xosé Estevezen <i>A presenza de Castelao En euskadi. Un líder carismático para os vascos</i> eta Iñaki Anasagastiren <i>Castelao y os vascos</i> (galizierazko edizioa) liburuen aurkezpena.
Urriak 13:	Gudariak oroitzeko jardunaldiak Azpeitian eta Eibarren. Erakusketaren inaugurazioa Azpeitian.
Urriak 14:	Hitzaldia eta liburu baten aurkezpena: Virgilio Samakuva (UNITA-Senegal). <i>Afrika eta demokratizazioaren arazoa: Angolako kasua.</i>
Urriak 19:	Gudariak oroitzeko jardunaldiak Azpeitian eta Eibarren. Liburuaren aurkezpena eta hitzaldia Azpeitian.
Urriak 20:	hitzaldia/liburuaren aurkezpena. Emakumeen ahotsak eta oihartzunak – Ganbara argitua. Emakumeen ahotsak eta oihartzunak.
Urriak 21:	Hitzaldia Helduak eta Zaintzea elkarteekin elkarlanean. Zure <i>burua zaindu, zaintzeko</i> . Hizlariak: Iñigo Zubizarreta, Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza Saileko zinegotzi ondokoa; Ana Tejedor Urra, Zaintzea, senide zaintzaileei laguntzeko udal zentroko psikologoa; eta Erika Leon Ochoa de Amezaga, Zaintzea, senide zaintzaileei laguntzeko udal zentroko gizarte-langilea.

Urriak 25:	Euskal Hezkuntzaren egungo eta etorkizuneko erronkak. Lanbide Heziketa. Europako erreferentea. (Koordinatzailea: Ana Esther Furundarena).
Urriak 26:	Gudariak oroitzeko jardunaldiak Azpeitian eta Eibarren. Erakusketaren inaugurazioa Eibarren.
Urriak 27:	Gudariak oroitzeko jardunaldiak Azpeitian eta Eibarren. Liburuaren aurkezpena eta hitzaldia Eibarren.
Urriak 29:	COVIDaren osteko agenda politikoa (koordinatzailea: Xabier Barandiaran).
Azaroak 4:	Iñigo Bolinaga historialariaren “Somos Comunidad” liburuaren aurkezpena eta hitzaldia.
Azaroak 10:	Hitzaldia Helduak elkartarekin elkarlanean. Nutrizioa. Miren Marínen eskutik, Medikuntza eta Kirurgia orokorreko doktorea. Nutrizio-medikua. Nutrizio-aholkularia.
Azaroak 17:	PDE-EDPrekin elkarlanean egindako mintegia. <i>EB Mendebaldeko Balkanetara zabaltzearen etorkizuna. Konpondu gabeko gatazkak eta erronka geopolitikoak gainditzea.</i>
Azaroak 19:	Mintegia: <i>Herritarrek politikagintzan sinesten dute?</i> (Koordinatzailea: Xabier Barandiaran).
Azaroak 22:	Mintegia: Euskal Hezkuntzaren egungo eta etorkizuneko erronkak. Ezagutza, ikerketa, zientzia eta berrikuntza. (Koordinatzailea: Ana Esther Furundarena).
Azaroak 26:	AMIAB dokumentala, Alex Txikonen eskutik: <i>Gailurra da bidea.</i>
Azaroak 30:	<i>Nor gara gu?</i> erakusketaren inaugurazioa Sabin Etxean.
Abenduak 10:	Hitzaldia Elizondon, Alejandro Elizalderi buruz, Etxahun Galparsoro historialariaren eskutik. BERTAN BEHERA, DENBORALEAREN ONDORIOZ.
Abenduak 14:	Mintegia: <i>Euskal pinturaren memoria.</i> José Luis Villacorta, Mikel Onandia, Luis de Guezala eta Michel Mejutoren eskutik.
Abenduak 15:	Joseba Rezolaren heriotzaren 50. urteurreneko erakusketaren inaugurazioa Ordizian.
Abenduak 16:	Mintegia, Euskaltzaindiarekin lankidetzan: <i>Bonifacio Echegaray, euskaldun ikasia.</i> Seve Calleja, Andres Urrutia eta Lázaro Echegaray.